

**UHIN HERRIKOIETATIK, UHAIN SOZIALERA: KORRIKAREN  
ZUZENEKO SEGIPENAREN GARRANTZIA IPAR EUSKAL  
HERRIKO IRRATIETAN**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Xalbat Alzugaray Etxeberri**

[xaltzugaray001@ikasle.ehu.eus](mailto:xaltzugaray001@ikasle.ehu.eus)

**Master Amaierako Lana**

Zuzendaria: Udane Goikoetxea Bilbao  
Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea

Multimedia Komunikazioa masterra  
(EHU/EITB)  
2023-2024

*Ahoa bizi-bizi prest bi belarriak,  
eskuz-esku heldurik lehertu ezarriak;  
argazki bat ipini lasterka egina,  
bihotz, muxu, irrintzi, nik bai eragina!*

*Mingainaz mingaina,  
mintzairaz mintzaira,  
lurrarekin batera  
jira eta bira*

*Kuku kulumuxu  
koko koriko,  
euskararen sarea  
ez da eroriko.*

*(Harro Herri, 2024)*

## **Laburpena**

Korrika eta hedabide alternatiboak analizatzeko gogoak bultzaturik, Euskal Irratietako Korrikaren zuzenekoak euskal hiztunengan izan dezakeen eragina ikertuko da lan honetan. Izan ere, lan honen bidez, hainbat ikerlari eta gizarte erreferenteren irizpideak gurera ekarri ditugu hedabide alternatiboak definitu nahian. Korrika ezaugarritzeko aldiz, Teresa Del Valleren lana zein Émile Durkheim soziologoaren batasun emozionalaren teoria txertatu ditugu. Oinarri teoriko sendo honek hiru elkarrizketa egiteko eduki franko eman digu. Batetik, zehaztu dezagun gure ikerketa, geografikoki Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetara mugatu dugula. Euskal Irratietako sarean parte hartzen duten hiru irratia ikertzeko xede harturik, Nafarroa Behereko Irulegiko Irratiko kide bat, Lapurdiko Gure Irratiko kazetari ohi bat eta, Xiberoko Botzako teknikari ohi bat elkarrizketatu ditugu. Elkarrizketa hauen bidez, irradi alternatibo bakoitzaren ezaugarriak argitara emanez, Korrikaren zuzenekoa nola eta zergatik sortu zen jakin nahi izan dugu. Azkenik, irradi bakoitzeko identitate ezaugarriak kontutan harturik, zuzenekoaren eragin positiboaz arituko gara: entzulegoari Korrikak transmititzen dituen emozio eta ezaugarri bateratzaileak, zuzenekoaren indarrak ere sortzen baititu. Hala, ondorioztatuko dugu Korrikaren irratiko zuzenekoak euskal hiztunari lagun diezaiokeela komunitatearen parte sentitzen, Korrikaren parte izaten.

Horrez gain, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza minorizatu gisa harturik, presentzia gorena du Korrika denboran, borroka transbertsal gisa kontsideratua den heinean. Orduan, irratiko zuzenekoak erakusten du euskaldunon hizkuntza minorizatuak estatus sozial bat ukan dezakeela, harrotasunez bere presentzia sustatzen baita Korrika denboran.

## Eskerrak

Nahiz eta ene izena agertzen den lan hau irekitzerakoan, jakin, hainbat pertsoneri esker ez balitz, Master Amaierako Lan (MAL) hau ez zela argitaratuko. Milesker, lehen-lehenik, gaia bideratzeko baliagarri izan zaizkidan solaskideei. Hortaz, ene eskerrik hoberenak Ana Urkizari, Eusko Ikaskuntzako lehendakariari, Korrikaren definizioa eta euskal nortasunari buruzko elementu garrantzitsuenak ekarririk. Esker berezia eta bero-beroa Jon Zabala ikerlariari, Korrikaren inguruko tesia egiten ari dela eta, soziologia eta psikologia maisuki uztartuz, marko teorikoko ezinbertzeko gako baliagarriak emanik.

Nola ez, Jojo Bidart, Allande Etxart eta Franck Dolosor ahantzi gabe segitu behar dut ene esker berezien zerrenda. Milesker, nahiz eta denbora muga handia izan den, enekin bildurik, kafe goxo bat eskuetan genuela elkarrizketa sakon hauek egin ahal izateko. Zuen lekukotasunak altxor hutsak izan dira lana osatzerako denboran eta irriatiak barne-barnetik ezagutzeko tenorean.

Esker mila Udane, gai honetan hastapen-hastapenetik sinesteagatik, ene gaiak lehenetsi izanaz baita zehaztasunera bideratzeko ukan duzun gaitasunaz. Proiektu zuzendari ezinhobea izan zara, nahiz eta denboraren eta bizitzaren harat-honatek mugak eman dizkiguten. Milesker erakutsi duzun prestutasunarengatik eta, zuzenketen zehaztasunarengatik zein erreakzionatzeko azkartasunarengatik: bururaino ene ondoan laguntza eskaini didazulako, eskerrak.

Lagun batzuen sostengua aipatu gabe ez dut lanaren tarte irekiko. Milesker, Sandrine, Sabina, Eztitxu eta Anari, emaniko kuraiarengatik eta animoengatik! Eskerrak Oihana, Kattalin zein Amaia, “are, istante fini duzu eta gero bakea” bakoitzean emaniko bultzadarengatik. BERRIAko Bilboko erredakzioko lagunei ere milesker, azken txanpa honetan animatzeagatik eta urte bukaerako ikastaroan hain goxo harturik.

Azkenik, begi kliska berezia hiri Aimar, esker onen tarte honetan, urtarriletik gaia buruan niala, ene arrangura, txapa eta ezingonak Bilboko pisuan jasan beharragatik.

## AURKIBIDEA

<b>1.Sarrera</b>	<b>6</b>
<b>2.Lanaren helburuak</b>	<b>7</b>
<b>3.Marko teorikoa</b>	<b>8</b>
3.1 Hedabide alternatiboak: definizio bila	8
3.2 Euskal Herriko hedabide alternatiboak	11
3.2.1 Euskarazko hedabideak	11
3.2.2 Euskara, hizkuntza minorizatua	11
3.2.3. Hedabideen aniztasuna	12
3.2.4. Hizkuntza eta hedabideak, talde nortasunaren eragile	13
3.2.5 Ipar Euskal Herriko irratiak	14
<b>3.3 Korrika</b>	<b>15</b>
3.3.1 Korrika eta batasun emozionala	17
<b>4. Metodologia</b>	<b>18</b>
<b>5. Emaitzak</b>	<b>20</b>
5.1.1 Hiru irrati alternatibo	21
5.1.2 Korrikako eta zuzenekoa: orotarikoa eta bateratzailea	22
5.1.3 Emozio anitzeko arnasberritze tresna	24
<b>6.Ondorioak</b>	<b>26</b>
<b>7. Erreferentzia bibliografikoak</b>	<b>27</b>
<b>8. Eranskina</b>	<b>30</b>
8.1 Jojo Bidarteren elkarrizketa	30
8.2 Allande Etxarteren elkarrizketa	36
8.3 Franck Dolosorren elkarrizketa	40

## 1. Sarrera

Korrika pozaren sinonimoa dela anitzetan entzuten dugu. Poz eta indar kolektibo honek joan den martxo eta apirilean Euskal Herria zeharkatuz, lekukoa pertsonaz pertsona igaro ondotik, 2 792 kilometro lotu zituen. Herriz herri, auzoz auzo, elkarte elkarte eta pertsonaz pertsona pasa da lekukoa, 1980ko Korrikan bezalaxe. Azken metroen zirrarak sortzen du Korrika kideen baina baita euskal hiztunen artean, emoziorik eta adrenalinarik handiena, mezua irakurtzeko nor ote den zain egonik, begi guziak erdiko oholtzara bideraturik. Hamar egunez irauten duen euskararen aldeko lasterketaren kontakizuna egitea bada euskarazko hedabideen zeregin nagusia. Hain zuzen ere, hedabide nagusienetatik, tokiko hedabidera, Korrikak zuzeneko mota anitz sortzen ditu: uhin bidezko zuzenekoak edota *streaming* deiturikoa.

Azken honek nahiz eta indar handia hartu duen azken aldietan, irrati bidezko zuzenekoak hasi zen Korrika bertatik bertara antenara transmititzen. Telefono kabina, antena inprobisatu edota hainbat trikimailuren bidez, nahiz eta Euskal Irratien ahala ez zen handia, Korrikaren segipena hobetuz joan da denboran zehar. Gaur egun, oraino biziki bizirik dirauten bitartean, irratiek euskara zabaltzeko hartzen duten misioaz gain, euskal hiztunon ekitaldi kolektiboen kontakizuna transmititzea ezinbestekotzat jotzen dute. Transmisio horrek, gure kasuan Korrika eta entzulea lotzen duen zuzenekoak garrantzia du irrati entzuleen artean, euskarazko ekitaldia sustatzeaz gain, norberaren barneak mugitzen baititu.

Lanaren funtsera hurbilduz, lehenik sarrera honetaz hasiko dugu ikerketaren haria josten, lanaren helburuarekin harituz. Ondotik, ikerlan honi oinarri sendoa ematen dion marko teorikoan hainbat adituren oinarri teoriko gureganatu ditugu, testuinguru teoriko gotor bat eman nahian. Elkarrizketen partean, elkarrizketa sakonen aukeraketaren zergati zehatz eta metodologikoa aurki genezake baina, batez ere elkarrizketen urrezko emaitzak topatuko ditugu, Korrikaren irratiko zuzenekoak duen eraginaren ondorioekin bukatzeko.

## **2.Lanaren helburuak**

“Korrikak lortu du alderdi politiko, sindikatu eta eragile askotarikoak euskararen inguruan batzea, eta hori da egin behar duguna” (Ane Elordi, Korrikako koordinatzailea, 2024).

Korrika berak adostasun sozial zabala lortu du azken urteetan. Nahiz eta borroka ez den erraza izan, **ekimen transbertsal** gisa har genezake Euskal Herria saretzen duen euskararen aldeko lasterkaldia. Erran gabe doa adostasun sozial honen erdigunea euskara dela.

Ondorioz, euskara muina izanik, saiatuko gara frogatzen **euskal hiztun komunitatea arnasberritzeko ezinbesteko ekimena dela Korrika**. Edozein talde sozialek derrigorrez behar lituzkeen indarberritzeko ezaugarriak batuko lituzke Euskal Herri osoa josten duen ekimen honek.

Korrikak ez du adostasuna sindikatuetan, alderdi politikoetan edota elkarteetan baizik zabaltzen. Euskal Herriko hedabide guziek Korrikaren berri ematen dute. Hain eremu geografiko ttipian berrehun hedabidetik goiti ditugu. Horietariko batzuk hedabide alternatibo, komunitario eta parte hartzaileak dira. Orduan, saretzearen ideia ez da bakarrik mugatzen Korrikak egiten duen ibilbidean. **Hedabideen sare bat** ere osatzen da Korrikari aipamena egiteko eta anitzetan, Korrikaren zuzeneko segipena egiteko ere.

Hedabide alternatiboen artean, Euskal Irratiak sarea bera nabarmen genezake. Gure Irratiak, Irulegiko Irratiak eta Xiberoko Botzak osatzen dute Euskal Irratiak federazioa. Hain zuzen ere, **euskaratik eta euskaraz Ipar Euskal Herria hiru lurraldeak lotzen eta errotzen** duten irratiak direla erakutsiko genuke.

Ondorioz, hedabide guziek Korrikaren berri jasotzen duten heinean, gure helburua nagusia litzateke **Ipar Euskal Herriko irratietan dagoen zuzeneko segipenaren garrantziaren eragina azpimarratzea**. Sinetsia garelako Korrikaren zuzeneko segipenak irrati alternatiboetan garrantzia duela euskal hiztun komunitatea sendotzeko eta arnasberritzeko.

Korrikaren zuzeneko segipena lantzeko hiru elkarrizketa egin ditugu. Gure Irratiko langile ohi izan zen Franck Dolosorri. Irulegiko Irratiko zuzeneko segipena urte luzez egin zuen Jojo Bidarti eta Xiberoko Botzako Allande Etxarti.

Elkarrizketa hauen bidez jakin nahi genuke, **Ipar Euskal Herriko irratia alternatiboan sortzearen gakoetariko batzuk zeintzuk izan ziren**. Bigarrenik, irratien ezaugarrietan murgildurik, **Korrikak irratietako saioetan duen lekua behatu eta jorratuko genuke**. Azkenik, Ipar Euskal Herriko irratien identitatearen ezaugarrietan murgilduz gero, **Korrikak euskal hiztun komunitatearengan lukeen eraginaz** hainbat informazio bilduko genituzke.

### **3.Marko teorikoa**

#### **3.1 Hedabide alternatiboak: definizio bila**

Euskaltzaindiaren arabera, hedabidea “berriak eta argibideak hedatzeko bidea da”, prentsa, irratia, telebista eta Internet batez ere. Komunikabide hitza ere sinonimo gisa balia dezakegu lan honetan.

Alternatibo hitzari doakionez eta batez ere komunikazio alternatiboa definitzeko, hainbat teoria argitaratu izan dira. Alde batetik, latinoameriketako unibertsitatetako ikerlari anitzek gai honi buruzko lanketa sakona eraman dute. Adibidez, Armand Mattelarten (2018) arabera, “alternatiboa” elementu irautzaile gisa kontsideratzen da eta sistema produktibista eta hegemonikoaren kontra doana da alternatiboa: “opuesta a los sistemas técnicos de la sociedad productivista”. Simpson Grinbergekin (1986) aldiz, hala dio: komunikazio alternatiboa “egitura transnazionalei aurre egiteaz gain, komunikazio alternatiboak, komunikazio-boterearen galdezkatzea ere erdigunean ematen du”.

Horrez gain, erran dezagun komunikazio alternatiboaren bidez aldaketa soziala nahi dela. Izan ere, komunikazio alternatiboak bazterrean, gutiengoan edota ahots ezezaguna zein bestelako informazioa zabaltzea du helburu. Garcíaeren erranetan (2012), komunikazio alternatiboa “garapenerako komunikazio” gisa ezaugarritu daiteke. Hari honi tiraka, bestelako



komunikazioa aldaketa sozialerako tresna gisa har daiteke: “Comunicación alternativa para aquellas relaciones ideológicas de transmisión de imágenes y signos que estén insertas en una praxis transformadora de la estructura social en su totalidad” (Graziano, 1980). Bertzalde, komunikazio alternatiboak gizarteko estruktura komunikazionala suntsitzeko eta berri bat eraikitzeko balioko liguke. Baina ez bakarrik: alternatiboa diskurtso ofizialaren kontra joateaz gain, inposaturiko botere ordenaren kontra egitea ere litzateke (Vinelli y Esperón, 2004).

Komunikazio alternatiboaren barnean, komunikazio komunitarioaz ere aritzeko parada irekiko genuke. Izan ere, komunikazio komunitariotzat jo daiteke tokiko garapenerako prozesua barnebiltzen duen komunikazio: “La comunicación comunitaria como parte de un proceso de desarrollo local, que privilegia las estrategias de impulso productivo y social en ese nivel” (Kaplún, 2007). Espazio publikotzat har daiteke komunikazio komunitarioa, herriak eraikitakoa nolabait, gune politiko baten xedez:

Destaca la necesidad de contextualizar la comunicación comunitaria desde el territorio, pero lo menciona como “espacio público”, de construcción política, como lugar de derechos y reconocimiento tangible de los mismos, donde la comunicación comunitaria pueda funcionar efectivamente como facilitador y constructor de ese espacio público. (Uranga, 2009: 183).

Erresuma Batuetako kontzeptualizazioari doakionez, erran daiteke alde batetik, hedabideen definizio politikoki emantzipatzailea proposatzen duela. Informazio sortzaileen eta publikoaren arteko harremana litzateke batetik garrantzitsua dena. Bestetik, ekoizpen kolektiboaren garrantzia azpimarratzen digu baita jendearen egunerokotasunean oinarrituriko beharrak kontutan hartzea ere (Atton, 2001). Ikerlari honen oinarritzko ideian oinarriturik, McQuailek ere bere definizio ekarri zuen. Bistan denez, hedabide alternatiboak demokrazia parte hartzailean kokatu behar genituzkeela:

We find a ‘democratic-participant’ model (again based on Enzensberger) that is founded on the use of communications media ‘for interaction and communication in small-scale settings of community, interest group and subculture’ that favour ‘horizontal patterns of interaction’ where ‘participation and interaction are key concepts’. (McQuail, 1994: 132).

Glass Schuman ikerlariak hedabide alternatibotzat jotzen du ekoizpen eta banaketa sistema ekintzailea delarik, hots, ekintzarako informazioa sortzen duen hori litzateke hedabide alternatiboa. Hedabide hegemonikotik bereizten duen ezaugarria litzateke haxe, hain zuzen. (Glass Schuman, 1982).

Edozein gisaz, ikerlari bakoitzaren definizioen ñabardurak kontutan harturik, 1977an, The Royal Commission of the Press erakundeak honela ezaugarritzen du hedabide alternatiboa: “1-An alternative publication deals with the opinions of small minorities. 2-It expresses attitudes ‘hostiles to widely-held beliefs’. 3-It ‘espouses views or deals with subjects not given regular coverage by publications generally available at newsagents” (Royal Commission on the Press, 1977)

Ondorioz, argi eta garbi uzten digu zerrenda honek, hedabide alternatiboak minorizatuari, hots, bazterrekoaren ahotsari oihartzuna eman behar diola, bestelako ekimen batzuen berri emanez edota hedabide hegemonikoek estaltzen ez duten hura txertatuz, orotariko iritziak kontutan hartuz.

*The Alternatives of Print* aldizkariak ekoizpen alternatiboaz xehetasun franko ematen ditu. Izan ere, argitaralpen batek irabazi gabekoa izan behar du, defendaturiko ideia lehen lerroan emanez eta, etekin nahia baztertuz zein erantzukizun soziala erdigunean jarriz:

1-The publisher has to be non-commercial, demonstrating that ‘a basic concern for ideas, not the concern for profit, is the motivation for publication’. 2-The subject matter of their publications should focus on ‘social responsibility or creative expression, or usually a combination of both’. 3-Finally, it is enough for publishers to define themselves as alternative publishers” (Alternatives in Print, 1980: 7).

Azken finean, ikus daiteke ikerlari franko bat datozela hedabide alternatiboa definitzeko. Ez dago definizio kontrajarririk, definizio eta ikuspegi osagarriak baizik. Ondorioz, hedabide alternatiboa litzateke: herria parte harazten duena, irabazirik gabekoa, tokiko gaiez aritzen dena baina batez ere, hegemoniaren kontra egitea eta, bazterreko ahotsak erdigunean ezartzea, erantzun sozial bat kontutan harturik.

## **3.2 Euskal Herriko hedabide alternatiboak**

### **3.2.1 Euskarazko hedabideak**

Euskaraz bizi nahi duenak bere lekua aurki dezake hainbat hedabidetan. Pisu sozial handia dute euskarazko hedabideek hizkuntzaren normalizaziorako tresna gisa har daitezkeelako: “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ikuspegitik, euskarazko hedabideak normalizatzeko ahalegina egitea, eta euskaldun guztiontzako informazio eta komunikazio

sistema bat zabaltzea estrategikoa da, erabat” (Hekimen, 2012).

Hizkuntza minorizatuaren normalizazio prozesuan aitzina egiteko, beharrezkoak dira euskara hutsean jarduten duten hedabideak: euskaraz pentsatuak eta euskaraz zabalduak direnak:

Euskaraz sortu eta euskaraz merkaturatzen dena. Euskal hedabideak ezin baitira ez erdal hedabideen itzulpen hutsa izan, ez berri agentzien notizia euskaratuak izan. Ez luke zentzurik. Euskal “unibertsoetik” landu eta sortu behar dira euskal berripaper, irrati, telebista zein euskarri berriak” (Herri Ekimen Euskal Hedabideen Sektorea, 2012: 6).

Erran gabe doa orduan, euskara hutsean jarduteak alternatiba bat eskaintzea duela, zentzuan non eta hegemonikoaren kontra joatea den, euskara hizkuntza minorizatu gisa aitzina eramateko nahiarekin, euskaraz ez bada egiten, ez baita aitzinatuko euskara. Bertzalde, erdaren eragin handiaren zurrumbiloan euskarari hatsa ematea alternatiboa litzateke, iraultzailea nolabait, hegemonikoaren kontra joatea.

### 3.2.2 Euskara, hizkuntza minorizatu

Alternatibotasunari buruzko hainbat teoria eta definizio jorraturik eta nazioarteko marko orokorraren hurbilketa eskainirik, jin gaitezten Euskal Herrira. Euskal Herriak hizkuntza minorizatu bat dauka: euskara. Hizkuntza minorizatu da “berezko hizkuntz komunitatean bere erabilera publiko eta pribatuetan atzerapen prozesua jasaten ari dena” (Fito Rodriguez, 1994). Ondorioz, ezin dugu hizkuntza minorizatu nihundik ere estatu bat duten hizkuntzekin erkatzen ahal. Jakina da Euskal Herrian milioi bat inguru euskal hiztun direla. 2021ko Inkesta Soziolinguistikoan, euskararen kale erabilera %12,6koa zen. Erdaraz ari diren portzentaia aldiz, %83,1koa da. Lapurdi, Nafarroa-Behera eta Zuberoa kontutan hartzen bagenu aldiz, karrika erabilera %4,9koa da eta 1989tik beheiti etorri baizik ez da egin.

### 3.2.3. Hedabideen aniztasuna

Gaur egun biziki zabalduriko ideia da sare sozialek edonon bihur dezaketela kazetari. Alegia, askatasun gehiago dela transmitituriko informazio horretan. Hala ere, nahiz eta sare sozialak informazioa laster plazaratzeko gune ona izan daitezkeen, gutiengo baten esku gelditzen dira komunikabideak baina baita sare sozialak ere. Multinazional batzuen esku, edota estatu batzuen menpe ere, Txinaren kasua hartzen bagenu adibide gisa. Ondorioz,

komunikabideen jabetza kontzentratzea hedabideen askatasunaren aurkako mehatxua da. Azken batean, online plataformak eta sare sozialak gero eta gehiago diren arren, gutxi batzuen esku dago oraindik informazioaren gaineko boterea eta eragina. Hari beretik, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) berak medioen kontzentrazioa dela eta hauxe dio: “Hace peligrar la capacidad que posee el sistema de medios para reflejar todo el arco de ideas, perspectivas y opiniones que existen en la sociedad, y para representar a todos los grupos políticos, culturales y sociales” (Mendel, García, Gómez, 2017).

Europaren kasuan, ohar gaitzke konpainia handi batzuen menpe direla telebista kate anitz. Horrez gain, konpainia hauek, talde amerikar batzuen menpe direla ere ohar daiteke. Ondorioz, telebista kateetan zabalduko informazioa adibide gisa harturik, nagusiki talde edo telekomunikazio konpainia hauen kontrola jasaten du:

“The pan-European groups tend to have a range of specific niche brands that are available throughout Europe (for example groups such as Discovery, Viacom, Time Warner, The Walt Disney Company, and 21st Century Fox), 10 and are most often subsidiaries of the major US media groups. In contrast to the multi-country broadcasting groups, pan-European groups tend to establish in one or two European countries as a hub from which to licence their pan-European channels for broadcast throughout Europe”. (Fontaine eta Kevin, 2016: 22).

Nazioarteko Kazetarien Federazioak bere aldetik, pluralismoa defendatzen du, dudarik gabe, zerbitzu publikoaren balioak hedabide mota guzietan zabaldu nahian. Hain zuzen ere, ildo beretik, orotariko hedabideak zein askotariko iritziak liriateke, orotariko prentsaren definizioa bera: “By a pluralistic press, we mean the end of monopolies of any kind and the existence of the greatest possible number of news-papers, magazines and periodicals reflecting the widest possible range of opinion within the community” (Mendel, García, Gómez, 2017).

Euskal Herrira etorririk aldiz, kazetaritza parte-hartzaileko adibide ugari ditugu. Izatez, tokiko komunikabideak dira, herrigintzan tradizio luzea dutenak, hedabide komunitario, alternatibo edota oinarri sozial zabalekoak direnak. Gure kasuan, erran daiteke pluralismoa islatua dela. Alde batetik, hedabide komunitario, alternatibo eta parte-hartzaileak ditugulako eta bertalde, komunikabide publikoak zein hegemonikoak. Izan ere, Euskal Herriaren kasuan, berrehun hedabide alternatibo baino gehiago zenbatu daitezke, idatzitik hasi, irratiko uhinetatik pasatuz eta telebistetako pantailalara ailegatuz.

### 3.2.4. Hizkuntza eta hedabideak, talde nortasunaren eragile

Nortasunak zer pentsatua ematen digu. Bere burua definitzen duen kolektibo bat bezala ulerturik, zeina, aldi berean, besteengandik errekonozitua eta aitortua izan behar den heinean, norbait izatea da identitatearen auziari dagokion erantzuna. Hau da, norbait izan behar dugu gizarte talde batean, bertzeak, kide onartuak diren horiek, gu onartzen gaituztelarik: identitate sozialak eta sinbolikoak gara. Horrek erran nahi du besteak behar ditugula bizitzeko, besteak behar ditugula gure mundua irudikatzeko eta besteak behar ditugula gu nor garen jakiteko eta norbait izateko, GU hori eraikitzeke (Larrañaga 1993).

Gurean, hizkuntzak, komunitate edo talde baten talde nortasunean eragiten du. Auguste Comte soziologoak jadanik azpimarratu zuen hizkuntza “la plus sociale des institutions humaines” zela. Alegia, sozialki gauzatutako fenomeno zeina gertaera sozial gisa ezaugarritu dezakegun. Gauzak horrela, argi ukan dezagun hizkuntza ez dela hartzen batetik, gramatika soiltzat eta are gutiago gramatikaren atal simple gisa. Ez da kontsideratuko bakarrik komunikazio tresna soil bezala. Ez da hitz egiteko kode sistema soiltzat hartuko. (Larrañaga, 1993).

Gure kasuan, euskal nortasunaren eraikitzean ere eragiten du hizkuntzak. Jakina, hizkuntzak berak taldea zedarritzen duten ezaugarri objektiboak hedatzen ditu. Ikur amankomunak hedatzeko gaitasuna ere badu hizkuntzak eta sinpleki, harremanetan ematen ditu hiztunak. (Amezaga, 2009).

Hizkuntza bera gertaera sozial harturik eta, gure nortasuna osatzeko elementu nagusia izanik, euskarazko kazetaritzak eta euskarazko hedabide oro da balio transmititzailea. Izan ere, euskarazko kazetaritza herrigintzan txertatuta dago erabat, herrigintzaren parte oso garrantzitsua da, hizkuntzaren garapenean eta zabalkundearen diharduelako: “Euskarazko kazetaritza, kazetaritza den aldetik, euskal identitatearen eta balioen transmisore da lehen instantzian; identitatea eta balioak sortzen dituenik ez nuke esango, ez baita hori bere egitekoa. Izatekotan, identitate eta balio horiei forma ematen laguntzen du eta batez ere, hedatzen (Garmendia, 2021)”.

Gure izatearen eta nortasunaren marka-eragilea da euskal kazetaritza. Euskal egile eta eragile anitzen lanen plaza baita euskarazko kazetaritza, batik bat. Euskarazko hedabideak talde nortasunean anitz du jokatzeke. Hedabideek oro har historikoki jardun baitute nazio eraikuntzan: “XIX.mendetik aitzina, hedabideak nazio nortasunaren eraikitzaile handiak izan

dira, hiru dimentsioz mintzo gara kasu honetan: taldea definitzen duten ezaugarri objektiboen hedatzaileak dira. Eremu publikoaren euskarria ematen dute eta ikur hedatzaile garrantzitsuenak dira” (Amezaga, 2009).

### 3.2.5 Ipar Euskal Herriko irratiak

Aztergaia zehazte aldera, Ipar Euskal Herrian zentratu gaitezten orain. Izan ere, lehenik eta behin, irrati sarea hartzen bagenu, Gure irratiak sortu zen lehen-lehenik. 1981ean Frantziako estatuak irrati libreak legeztatu zituen. Ondorioz, Gure irratiak 1981ko abenduan hasi zen emititzen Entzun Ikus elkartearen bidez. Milafrangan sortu eta Baionara mugitu zen 1997an. 2006tik Uztaritzeko Landagoien gunean kokatua da.

Hastapen batean, Ipar Euskal Herri osoko emisioa zuela helburu, lege eta lizentzia arazoak tarteko, bere zabalpena Lapurdiko eremura mugatu behar izan zuen. Hortxe sortu zuten 1982an, urte bat berantago Irulegiko irratiak eta Xiberoko botza, hurrenez-hurren Nafarroa Behereko eta Zuberoako irratiak. 2001ean aldiz, Bidasoaldeko Antxeta irratiak ere sortu zen. Lau irrati hauek Euskal Irratiak deituriko federazioan dira. 1990an sortu zen hau, herri mugimenduetatik sorturiko irratiak batzeko asmoz hainbat ardatzen inguruan. Elkarren artean gaur egungo programazioaren %80a partekatzen dute eta arazo amankomunei aurre egiteko erraztasuna dute elkartean batuak diren heinean. Hainbat helburu finkatu ziren irrati hauen zereginaz: euskararen eta euskal kulturaren hedapena eskaintzea.

Irrati hauek hedabide alternatibo gisa definitu daitezke. Batetik, herrigintzatik euskara hutsean emititzen dutelako. Bestetik, tokian-tokiko gaiak zein ahotsei lekua ematen dietelako, nolabait *mass mediak* tratatzen ez dituzten gaiak eta ahotsak erdigunera ekarriz. Azkenik, azpimarra daiteke enpresetako ditu eta laguntza publiko gutirekin kudeatzen dutela haien jarduna. Entzuleak eta bazkideak dira irratiaren kontsumitzaile zein egile aldi berean, kolaborazio anitz egiten direlako herritarrekin. Hedabide alternatiboa izateaz gain, Ipar Euskal Herriko mugimendu alternatiboan sar daiteke Euskal Irratiak sarea, dudarik gabe. Izan ere, 1980. hamarkadan aldarrikapen bati erantzuteko sortu ziren irratiak, euskaraz bizitzeko eta euskararen gainbehera ekiditeko aldarrikapena bereganatuz.

Povedak (2020) azalduz, antolakuntza alternatiboak oro har, nagusiki herritarrek gobernatuak dira, kasu honetan betetzen da. Bertze ezaugarrietariko bat da mugimendu alternatiboek haien ekintzak lokalki edo biziki lokalki gauzatzen dituztela, gure kasua, hain

zuzen. Baliteke irratien kasuan instituzionalki bete gabeko gabeziak tapatzeko edo alternatiba bat emateko sortu zela, alegia litekeena da hizkuntzaren ofizialtasun ezak eragindako erantzuna izatea.

### **3.3 Korrika**

Ipar Euskal Herriko irratiek Korrikaren zuzeneko segipena 1980. hamarkadan sartu zuen. Korrika definitzekotan, AEK-ko webguneari behatzen badiogu “Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko konzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.” Baina badakigu Korrika ez dela hori bakarrik; baizik eta erritu kolektibo gisa definitzeko nahiarekin ausar gaitezke. Émile Durkheim soziologoak azaldu bezala, edozein kolektibo edo gizartek taldeko kidesasuna mantentzen du. Beharizan bat da kidesasun hori eta talde kohesioa sustatzen duen erritu kolektibo gisa kontutan hartzea. Korrikak indartsuago egiten baikaitu gure egunerokoan, behin kidesasun sentimentuak berrituko duen ekitaldi honetan parte harturik.

Erritu kolektibo hau sozializazio gunea da ere. Hainbat belaunaldi biltzen dira elkarrekin lasterka egiteko, denak batera. Zutik hasi berria dena eta adineko pertsona batek egin dezakete lasterka elkarren ondoan. Korrika, balore transmititzailea da: “Korrika constituye una forma de socialización informal no sólo en el mundo de los adultos sino también en lo que podríamos considerar transmisión de valores y contenidos identificados como étnicos” (Teresa del Valle, 1988). Korrikak lurralde oso bat lotzen du aldarrikapen beraren inguruan: hizkuntzaren aldarrikapena, euskara erdigunera ekartzen duen heinean.

Ekitaldi transbertsala ere bada. Nahiz eta 1980ean hasi zen lehen Korrika, gaur egun balio duen ekimen bateratzailea eta adostasun soziala lortu duena da (A.Urkiza, komunikazio pertsonala, 2024). Euskal Herriko lurralde guztiak lotuz, talde indarraren sentimendua nabaritu daiteke Korrikan zehar, elkarrekin izerditzea eta, indarra ematea baita Korrikak sortzen duena: “Korrika aparece como una acción cargada de energía física y simbólica, es una visión de fuerza unida, de *indarra*” (Teresa del Valle, 1988). Lurraldetasuna barnertatzeko erritualizazioan parte hartzeaz gain, aldarrikapen desberdinak plazaratzeko erabiltzen da anitzetan Korrikaren pasatzea. Adibidez, aurtengo Korrikan, Euskal Herrian Euskaraz kolektiboak hizkuntzaren aldarrikapena egin zuen, edota Erdiz Bizirik proiektuak,

ingurumenaren kontrako makroproiektu handien kontra joanez. Besta eta aldarrikapena batzen duen tokia da Korrika, dudarik gabe.

Korrika bera kontsumitzeko era amankomuna nabaritu dezakegu, hizkuntzaren arduraren aitzinean eta hizkuntza beraren transmisioan denok gaude, zahar zein gazte, denontzat gazua bera da Korrika: lasterka egitea. Ez dago hierarkiarik. Azken finean, Korrika da erakusten, sentitzen eta egiten dugun ekitaldia (A.Urkiza, komunikazio pertsonala, 2024).

Ondorioz, ikusita gure alor teorikoa zein den; zehaztu dezagun aztertu beharrekoa. Izan ere, hedabide alternatiboen teoriarekin hasirik, hizkuntza eta talde nortasuna aipaturik, erran dezakegu Korrikaren zuzeneko segipenak kontzeptu guziak batzen dituela. Alde batetik, Korrika baita hizkuntza gutitu baten alde egiteko ekitaldia, hegemoniaren kontra doana, alternatiboa, hots. Bertzalde, Euskal Irratien sareak Korrikako segipena nola sartu zuen eta gaur egun zer leku duen jakitea izanen da gure xedea: uhin alternatiboen bidez, ekitaldi alternatibo baten berri emateak zer sortzen duen, hain esanguratsua zaigun Korrikaren zabalpena gauzatzean.

### 3.3.1 Korrika eta batasun emozionala

Émile Durkheim (1858-1917) soziologo aitzindariaren arabera, gizabanakoak bere garapen indibidual optimo baterako kidesun eta konexio sententzioak behar ditu, hau da, parte den gizartearekin patu berbera partekatzearen sententzioa behar du (1893/1933, 1897/1952).

Gaur egungo ikerlarien arabera, gizakiak ura, janaria, loa, babesa eta segurtasuna behar dituen bezain bertze behar ditu besteekiko kidesun eta lotura sentipenak (Gabriel et al., 2020). Izan ere, ikerketek modu trinko batean erakutsi dute lotura sozialen harreman positiboa ongizate psikologiko zein fisiko hobegoarekin, baina baita bizi itxaropen luzeago batekin ere (Chu et al., 2010; Holt-Lunstad et al., 2010, 2015; Pinguart & Sörensen, 2000; Schwarzer & Leppin, 1989, 1991). Adibidez, 70 ikerketa biltzen dituen meta-analisi baten arabera, hilkortasun aukera % 29 areagotzen da gizarte isolamenduagatik, % 26 bakartasun sentimenduagatik eta % 32 bakarrik bizitzeagatik (Holt-Lunstad et al., 2015).

Bertzalde, 148 ikerketa biltzen dituen beste meta-analisi baten arabera, harreman



sozial estuek % 50 areagotzen dute bizi itxaropena (Holt-Lunstad et al., 2010). Kidesun sentimenduei dagokionez, azken urteetako ikerketek talde ezberdinekiko kidesun sentimenduak osasun fisikoarekin eta ongizate psikologikoarekin positiboki, eta depresioarekin, antsietatearekin eta estresarekin negatiboki erlazionatzen dela erakutsi dute (Greenaway et al., 2016; Jetten et al., 2009, 2012; Postmes et al., 2019; Smith & Silva, 2011; Steffens et al., 2019). Adibidez, euskaldunen artean, haien arteko kidesun sentimendu indartsuagoa adierazi zutenek ongizate psikologiko, ongizate sozial, ahalduntze kolektibo eta parte-hartze komunitario maila altuagoak erakutsi zituzten ikerketa batean (Zabala et al., 2020).

Hain garrantzitsuak diren baliabide sozial hauek aldiz, pertsonen eguneroko isolamenduan agortzen doazen erregaiak dira. Hori dela eta, gizabanakoek eta hauek osatzen duten talde sozialek haien arteko kidesuna berpizteko beharrezana dute. Horretarako, ezinbestekotzat dute aldizka bilkura kolektiboak ospatzea (Durkheim, 1912/1915).

Durkheimen (1912) arabera, bilkura kolektiboak taldea eta taldekideak berpizten dituzten funtsezko ariketak dira eta rol garrantzitsua betetzen dute gizartearen eraikuntzan, iraupenean eta osasunean. Bilkura hauek, taldeko kideen arteko loturak, elkartasuna eta sinesmen eta baloreak berrindartzen dituzte. Hau da, kohesio soziala sustatzen dute. Berretsitako batasun sentimendu honek, gainera, pertsonak beraien eguneroko bizitza indibidualari aurre egiteko energia eta gizartearekiko konfiantza eraberritu batekin hornitzen ditu. Alabaina, eragin hauek ez dira nolana ere gertatzen, baizik eta eferbeszentzia kolektiboaren bitartez. Hau da, parte hartzaileen arteko bateratasun emozionalaren eta honen ondoriozko elkarreragin emozionalaren bitartez goratutako egoera emozionalaren bitartez (Rimé & Páez, 2023).

Zabala eta besteek (2022) Durkheimen teoria hau baieztatzeko asmoz, Korrikako 2019ko aldiko parte hartzearen eraginak aztertu zituzten. Eraitzen arabera, Korrikan parte hartzeak Durkheimen erran zituenak bezalako eraginak zituen. Hau da, kohesio soziala eta konfiantza soziala sustatzeaz gain, pertsonak indibidualki zein kolektiboki indarberriturik sentitu ziren, haien ongizatea eta ahalduntze kolektiboa areagotuz. Gainera ikerketa honen bitartez, Durkheimen eferbeszentzia kolektiboaren teoria ere baieztatu ahal izan zuten. Hau da, eragin hauek parte-hartzaileek hautemandako batasun emozionalaren bitartez azaltzen zirela alegia.

#### **4. Metodologia**

Lanaren helburuekin loturik, Euskal Irratietan izaniko langileei eta hainbat Korriketan parte hartu duten kazetariei elkarrizketa sakonak egin dizkiegu, ahal bezain informazio zehatza erdiesteko. Interesatzen zaigu, noski, haien iritzia eta bizipenak biltzea Korrikaren zuzeneko segipena orotariko ikuspegietatik tratatzeko. Orduan, metodologia kualitatiboa baliatuko dugula berretsiz, hainbat ikerlarik egin duten bezala, guk ere elkarrizketa beraren definizioaren bila jarri gara. Denzin eta Lincoln (2005) arabera, mintzatu bitartean galderak egiteko eta erantzunak entzuteko artea litzateke. Erran gabe doa informazioa elkarrizketatu baten eta elkarrizketatzaile baten artean lortzen dela, modu kontrolatuan eta inprobisazioari leku guti emanez, egoera ahalik eta neutralena izan dadin (Juaristi, 2003).

Definizio desberdinak aurkitu ditugu. Eiroak eta Barranquerok (2017) elkarrizketa planifikatua aipatzen dutelarik, honela definitzen dute: “Esan daiteke elkarrizketa informazioa lortzea dela, metodo zientifikoaren esparruan, modu sistematikoan planifikatutako elkarrizketa baten bidez”.

Bide batez, metodologia kualitatiboak fenomeno bati buruzko datu sakon eta ulergarrien iturri bihurtzen dira, biziki informazio zehatza ematen baitute. Erabaki baten iritzia, motibazio eta arrazoiez gain, hitzezkoa ez den komunikazioaren eta isiluneen azpian dauden erranahi inplizituek anitz erakusten dute (Eiroa eta Barranquero, 2017). Horretarako, giro egokia sortu behar da elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean (Juaristi, 2003).

Metodologia bakoitzak bere alde txarrak ditu. Elkarrizketa sakonen desabantailen artean, denboraz gain, bertze faktore batzuk ere aurki daitezke. Azpimarratzekoak dira elkarrizketatuak bere iritzia emateko izan ditzakeen arazoak. Horrez gain, pertsonak egoera desberdinetan gauza desberdinak erraten eta egiten dituzte. Ondorioz, elkarrizketatzaileak ez du elkarrizketatuaren testuingurua ezagutzen ahal. Bistan da, ez dugula aiantzi behar elkarrizketatzaileak elkarrizketatuarengan ukan dezakeen eragina ere.

Garrantzitsua da elkarrizketak eskaintzen dizkigun aukerak sakon ezagutzea, ezinbestekoak baitira elkarrizketa egiteko eta haren abantailak eta desabantailak ezagutzeko. Aukera horiei esker, pertsonak zer azaltzen duen nahiko zehatz jakin dezakegu, eta, gainera, modu askean jarduteko giro egokia sortzea garrantzitsua da. Azkenik, mota honetako elkarrizketek (Juaristi, 2003) aukera ematen dute aztertzen diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakon jorrazteko eta aztertzeke, eta, hala, informazio zehatza lortzeko.

Prestaketa faseari doakionez, galderak sortzeko eta ordenatzeko tenorean, beharrezkoa da ikerketaren helburuak elkarrizketaren galderekin bat datozeela egiaztatzea. Alderdi horiek definitu ondotik, elkarrizketatuko diren funtsezko pertsonen lagina hautatu behar da, haien kopuruaren, profil profesionalaren eta esperientziaren arabera. Izan ere, elkarrizketatuen hautaketa gaiarekiko oreka xerkatuz, ikergaiarekiko duten sentsibilitatea hautemanetz eta esperientziaren arabera hautatu ditugu. Ikerketa lanaren irizpideen helburua ardatz gisa harturik, gaiarekiko ikuspuntu desberdinak izatea komeni zaigu, ikerketaren aberastasuna ahalik eta handiena izan dadin.

Horren gauzatzeko, sakoneko hiru elkarrizketa egin ditugu. Azpimarra dezagun, elkarrizketatuek galdera berak edo biziki antzekoak ukan dituztela. Irizpide geografikoari doakionez, Ipar Euskal Herriko irriatiak izanik gure ardatzik garrantzitsuenetarik bat, Xiberoko Botzako teknikari ohi bat, Irulegiko Irratiko sortzaileetariko bat eta Gure Irratiko kazetari ohi bat hautatu ditugu elkarrizketa egiteko soslai gisa. Bertzalde, argitara eman dezagun orotariko lan esperientzia dutela hiru elkarrizketatuek. Bata teknikaria izan zen, bertzea aldiz irriati sortzailea eta kazetaria eta azkenik, irriatiaren egitura plantan ezarriak zirelarik, bertan lan egin zuen kazetaria.

Elkarrizketatuak aurkeztekotan, has gaitezen Jojo Bidartekin (Baigorri, 1956). 1981ean aktiboki parte hartu zuen Irulegiko Irratiko sortzean. Lanbidez kazetaria eta irakaslea, Nafarroa-Behereko uhinen bidez euskara zabaltzen ibili da Irulegiko Irratiaren bitartez. Gaur egun, erretiratu da baina Irulegiko Irratiko lehendakari gisa segitzen du eta euskararen zein euskal kulturaren sustatze lanetan ari da Basaizea elkartean, batik bat. Bidartek hainbat Korrika segitu ditu kazetari lanetan ari zela eta.

Ondotik, Franck Dolosor (Senpere, 1977) kazetariari lekukoa eman diogu. Izan ere, bere lan esperientziaren eskarmentua nabari daiteke hura aurkeztean. 1996an, lizeotik landa,

hemezortzi urterekin hasi zen Gure Irratian lan egiten. 1999ko Korrika segitu du Gure Irratian kazetari gisa zebilelarik eta gaur egun EITB-n lan egiten duen arren, hainbat komunikabidetik pasatu izan da: *France Bleu Pays Basque*, Radio Euskadi eta, Ttipi-ttapa aldizkariarentzat kolaboratu izan du.

Azkenik, Allande Etxart (Altzai, 1950) teknikari ohiaren eta Xiberoko Botzako laguntzailearen lekukotasuna bildu dugu. Idazlea izateaz gain, Xiberoko Botzaren sortzaileetariko bat izan zen Etxart. Sohütako (Zuberoa) ikastolako sortzean ere aktiboki parte hartu zuen, *Euskadi Información* agerkariaren kudeatzailea izanik. Zuberoan aktiboki parte hartu izan du euskara sustatzen eta gaur egun ere, horretan dabil.

## **5.Emaitzak**

Elkarrizketa aberatsak izan ondotik eta, emaitzetan murgilduz gero, hiru zatitan banatuko genituzke hauek. Batetik, Korrikaren segipena aipatu baino lehen, lehen geldialdia egin dezagun hiru irratiaren sortze testuinguruan. Bigarrenik, geldi gaitezen elkarrizketatuek Korrikaz eman dituzten definizioetan. Azkenik, irratietako zuzeneko segipenaz arituko gara eta euskal hiztun komunitatearengan duen funtzio bateratzaileaz.

### **5.1. Hiru irradi alternatibo**

Laneko helburuak ahortzi gabe, argitu dezagun Korrikaren zuzeneko segipena jorratu baino lehen, ezinbestekoa dela Ipar Euskal Herriko irratiaren sorreraren testuingurua aipatzea. Erran gabe doa, 1980. hamarkadan frantses hutseko irratia zirela jaun eta jabe uhin seinaleen artean. Batik bat, Bidartek berak aipatzen du Irulegiko Irratian hasi baino lehen “*Radio Adour Navarre*” kostaldeko irratiaren lan egiten zuela. Hari honi tiraka, Etxartek ere azpimarratu du garaiko Zuberoako paisaia mediatiko hegemonikotik kanpo sortu zela Xiberoko Botza: “*Miroir de la Soule* eta *Sud Ouest* egunkariengandik boikot bat bizitzen genuen, itomen sentazioa genuen”. Kontra hegemoniatik, egunkari hauen kontra egiteko boterea izan zen Xiberoko Botza, “protestatzeko lekua” izanik, CGT sindiaktuak egiten baitzituen emankizunak, garaiko Zuberoako borroka sozialei ahotsa emanez. Dolosor aldiz, ez zen Gure Irratiaren sortzean izan baina garaiko erdarazko hedabide hegemonikoen aipamena egin du. Bere oroitzenetan barna sarturik, ez zuten Gure Irratia entzuten etxean: “*Radio France Pays Basque, Europe 1* eta *RTL* nagusiki entzuten zen”.

Euskarazko irratia euskara zabaltzeko beharrez sortu ziren. Bidartek gogora ekarri du garaiko euskararen gainbeherak bultzatu zituela Irulegiko Irratia sortzera. Euskararen normalizazio prozesuan azkarki eragiteko sortu eta gaur egun, misio beretan dabilzan irratia baitira Ipar Euskal Herriko hauexek. Etxartek, bertzalde, azpimarratu du ikastolaren sorrerarekin lotu beharko litzatekeela Xiberoko Botzaren loratzea: “Ni, garaian ikastolako gurasoa nintzen ere. Ikastolan pedagogia alternatiboei pentsatzen hasi ginelarik, irratan ere, zer nolako irratia nahi genuen gogoetatzen hasi ginen”. Bertzelako irratia izateaz gain, ez dago dudarik zerbitzu publiko baten parekoak direla. Instituzioek egin beharreko lana ordezkatzeko baitute irratiek, Dolosorren arabera: “Zerbitzu publikoa da. Osoki euskaraz egiten baitu irratia. Ordezkatzeko du gure zergak pagatuz gero ukan beharko genukeen zerbitzua. Funtsezkoak dira euskarazko irratia, euskararen arnaguneak direlako, euskalduntzeko tresna bat”.

Elkarrizketatu bakoitzak badu Ipar Euskal herriko irratien definizioa, baina, izan “euskarazko irratia orokorra” edo “euskarazko irratia bakarra Zuberoan”, euskara zabaltzeko eta euskal hiztun komunitatea erdigunera ekarri dituen komunikabideak dira Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza.

Irrati horien sortzean ezinbestekoa izan zen herriaren sustengua eta, bada gaur egun irratia hauen kasuan ardatz nagusitzat har daitekeen ezaugarria. Alde batetik, hainbat aldiz aipatu da hiru irratien sortzearen erroetan herria zela oinarri. Irulegiko Irratiaren kasuan, 1981ean Bidart eta bertze batzuk hasi ziren artzain baten ganbara moldatzen, Irulegiko Irratia has zedin euskara hutsezko informazioa zabaltzen: “Irulegiko Mentan hasi ginen, lagun baten etxean. Lehenik, ganbara bat moldatu genuen eta, zenbait hilabeteren buruan, arditegian muntatu ginuen zerbait. Laguntzaile guzien artean sortu genuen estudioa, antenak etxaldeko teilatuan emanez”.

Laguntzaileekin hasi baina laguntzaileekin segitu du Irulegiko Irratia, Gure Irratia eta Xiberoko Botzak. Nahiz eta enpleguak sortuz joan diren irratia bakoitzean, laguntzaile rola oraino funtsezkotzat jotzen du Bidartek: “Egonkortze bat izan da, langileen figura edo irratia profesionalizatu delako baina, laguntzaileak atxiki nahi genituen eta lortu dugu herritarrek parte har dezaten proiektuan”. Gaur egun, laguntzaile-kolaboratzaile rola atxiki du herritarrak

baita kronika egilearena ere. Bertzalde, urteroko diru bilketa kanpainaren erdigunean daude laguntzaileak, haiek baitira etxez etxe pasatzen herritarren sustengu ekonomikoa bildu ahal izateko. Ondorioz, herritarren parte hartzea sustatzeaz gain, proiektuarekin ekonomikoki bat egitea behar-beharrezkoa da.

Euskarazko irrati librearen eredu ekonomikoari behatuz, xumeki bizi direla ohar daiteke. Bistan da, alde batetik herritarren sustenguak irrati horien oinarri ekonomikoa osatzen duela. Gainera, diru sartze orokorretan Kultur Ministeritzak emaniko diru laguntza bat galdegiten dute (*Fond de Soutien à l'Expression Radiophonique Locale*). Aitzitik, bertako erakundeegandik irratia ekonomikoki lagunduak dira, hein batean, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) eta hainbat Herriko Etxe tarteko. Azkenik, hilabetero diru isurketa egiten duten pertsonak ere badira. Publizitate pixka bat txertatzen dute baina nagusiki diru laguntza publikoek eta entzuleen babesaz bizi dira gaur egun Ipar Euskal Herriko irratia.

## 5.2. Korrikako eta zuzenekoak: orotarikoa eta bateratzailea

Korrikaren segipenaren muinean sartu baino lehen, ezin ahantzi elkarrizketatu bakoitzak Korrikaz duen definizioa. Nahiz eta puntu batzuetan desberdina izan daitekeen, denek antzerako elementuez aritu dira.

Bidarteren arabera, “euskararentzat erakusleihoa” izateaz gain, Korrika gertakari sozial “akulatzaille eta bateratzailea” da. Dударik ez dezagun izan Korrikaren parte hartzaileen profila orotarikoa bihurtu dela denboran zehar. Etxarteren hitzetan, Korrika “uholde soziala” da eta, AEK-k eramaniko “kanpaina” bat. Bistan da ez dela kasualitatea hainbertze jende parte hartzen badu, gibelesko lan handia izaten delako. Dolosoren ustez, “jende tropa handiak” ikusten dira gaur Korrikan, baina hiruek azpimarratu dute hastapeneko Korrikak ez zirela hain jendetsuak eta “militanteen zerbait” zela. Hainbertze Korrika izanik, norbaitek pentsatuko luke gertakari sozial gisa definitu daitekeena, denboran zehar akituko zela. Justu kontrakoa adierazten digute irudiek eta lekukoek, nahiz eta jendearen parte hartzea “euskararen aldeko inplikazio” bihurtzeko zailtasunak ikusten dituzten.

Ondoriozta daiteke orduan, hiru elkarrizketen arabera, batetik, Korrika euskal hiztun komunitatearen, hots, euskal hiztunon indartzea dakarrela. Bertzetik, onar dezagun gaurko jende uholdea ikusirik, Korrika badela euskara ezagutarazteko sentsibilizazio tresna bat.

Funtsean, Korrikak parte hartze irekia du, nahiz eta jendea ez den euskalduna, ikusten da euskararen aldeko posizionamendu bat badagoela eta bide batez Korrikak berak hizkuntzaren aldeko borroka erdigunean ematen duela. Azkenik, erran daiteke elkarrizketak egin ondotik, Korrika sare gisa ezaugarritu daitekeela, errealki Euskal Herria bere osotasunean zeharkatzen duelako eta soka baten antzera, euskal nortasuna ere islatzen duen ekitaldi soziala delako: “emoziotik, sorkuntzatik eta frustraziotik badu euskaldun izateak”. “Erokeria” da Dolosorren arabera eta, Korrikaren definizio bila hastean, “gauza emozioagarri” gisa defenda dezagun.

Euskal hiztun komunitatearentzat hain gertakari handia da Korrika, non, ekitaldi handi guziak bezalaxe, irratiek ere zuzenean segitzen dutela euskararen aldeko lasterketa. Garaian zituzten baliabideez galdeginik, Korrika hasi zen hartan, Bidartek eta Etxartek oroitzen dute nola telefono kabinen bidez egiten zituzten zuzenekoak. Konkretuki, 1980. hamarkadan Ipar Euskal Herriko irratiak hasi zirelarik Korrikaren zuzenekoak egin nahian, lasterketako lehen kamioiaren aitzinetik joaten ziren kazetariak, kilometroz kilometro “jendearen arteko lotura” eginez. Hots, elkarrizketak egiten zituzten bide bazterrean zegoen jendeari, grabagailu bidez. Autora salto egin eta ahalik eta hurbilen zegoen telefono kabinara joaten ziren. Handik deitu eta telefonoz sartzen ziren antenara. Grabagailuan zegoena, kabinako telefonoari kolaturik botatzen zuten irratiko antenara. Etxartek eta Bidartek irriz adierazi izan dute “kalitate arrunt txarrekoa” zela egiten zutela baina, irudikatu daitekeen bezala, eskura zuten materialarekin konpondu behar zen.

Hala ere, 1985eko Korrika nola Atharratzen abiatu zen, Xiberoko Botzakoek antena inprobisatu bat egin zuten: “Atharratzeko plazatik abiatu zen Korrika hartan, oroitzen naiz nola soinu ekipo edo antena gisako zerbaite egin nuela, Piellenia ostatuko terrazan, hain zuzen ere eta, oso kontent ginen ekitaldiari zuzenean garrantzia ematea”. Bere antena inprobisatua baliatu izanaz oroitzen da Bidarte ere. Zuzenekoaren uhinak zabaltzeko baliagarria izan zen antena hura eta adierazi dutenez, Nafarroa Behereko parte batzuetan ere errazki zabaldu ziren Korrikaren abiatzearen zantzuak. Inprobisazioa zen nagusi zuzenekoaren egiteko. Dolosorren kasuan, 1999ko Korrikaren segipena egin ahal izateko, teknikari erretiratu bat etorri zitzairen laguntzera eta “halako telefono finko bat”, nolabaiteko “kutxa” bat eraiki zien, argindarrari lotzen zena. Grabagailua hortara lotuz gero, antenan zabaltzen zen mezua anitzez kalitate handiagokoa zen.

Telefono kabinetatik antena inprobisatura, gaur egun zuzeneko egiteko erak aldatu dira. Izan ere, “mini diskara” jauzi egin zutela oroitzen da Dolosor, baita irratitik joatekotan zegoelarik nola ordenagailuak sartu ziren ere. Aitzinamedu teknologiko handiak denbora gutian gauzatu ziren eta, zuzeneko egiteko manera ere bai. Gaur egun, *quantum* deituriko makina batek graba dezake mikrotik sartzen den oro. Irratiko kazetariak darabilten makina honek antenara zuzenean sartzeko aukera ere ematen dizu.

Zuzeneko segipenaz gain, erran daiteke Korrikak erabat aldatzen duela irradi hauen agenda informatiboa. Irulegiko irradian adibidez berri sailetan, hots, albistegietan ematen zaio lekua. Funtsean, bertze bi irratieta bezalaxe. Gure Irratiaren kasuan, goizetan, eguerditan zein arratsaldetan hamar minutuko tarreak izaten ziren antenan. Azpimarra dezagun, Korrikari garrantzia ematen bazaio Ipar Euskal Herritik pasatzen delarik, gizartean gertakari handia den heinean irradian ere hauek kontatzeko beharra sortu zela. Justuki, irratia momentu berezi hori entzulegoari transmititzeko nahian dabilta Korrika denboran. Azken finean, euskararen besta ospatzeko, programazioa horren arabera aldatzen da.

### 5.3 Emozio anitzeko arnasberritze tresna

Emaitzen parte hesteko, zuzenekoaren garrantziaz jardutea komeni zaigu. Korrikaren testuinguratzea kontutan harturik, baita zuzeneko segipenaren sorrera ere, azpimarra dezagun irratiko zuzenekoak xehetasun handiz tokiko giroaren berri ematen duela. Animazioa helburu gisa harturik, lekuan-lekuko giroaz gain, emozio transmitzailea da Korrika eta ondorioz, zuzeneko bera ere. Etxartek erran bezala, “irratia piztu autoan eta emozioa sortzen du Korrikak”. Emozioen harira, “poztasuna eta harrotasuna” transmititzeko indarra du zuzenekoak. Edozein dela ekitaldia, hain zuzen hori da zuzenekoaren indarra: ekitaldiari behar bezain indar ematea entzuleak sendi dezan bertan dagoela eta zerbait garrantzitsu gertatzen ari dela bere inguruan. Dolosoren ustez, zuzenekoak iragarpenak egiten ditu, hurrengo kilometroen iragarlea da: Korrika heldu denaren giro pizlea da zuzeneko.

Korrikaren oihartzuna entzuleei transmititzea da zuzenekoaren helburuetarik bat. Gaur ere hala den heinean, argitara eman dezagun eduki handikoa dela zuzeneko, Korrikaren kasuan gauza anitz kontu daitezkelako. Hainbat elkarrizketa egin daitezke zuzeneko bat egitean eta, batez ere Korrikaren kasuan; “jende berri anitz” ezagutzeko parada



izaten da Bidarteren arabera. Bidenabar, zuzenekoak batzen ditu kilometroak eta, batez ere kilometroz kilometro beha egoten den jendea lotzen du. Bidarteren ustez, garaian, irratia zen lotura bakarra jendeak jakin zezan Korrika nondik zebilen eta noiz helduko zen. Ondorioz, animazioa, lotura eta edukia transmititzeaz gain, zuzenekoaren garrantzia are handiagoa da ikus daitekeelarik hau bera zela Korrikaren etorreraz zerbait jakiteko tresna bakarra.

Zuzenekoak Korrika sinpleki kontatzeko ahalmena baldin badu ere, orotariko jendea elkarrizketatzeko aukera ematen du. Izan ere, irratiko estudioetatik eta Korrikaz gain ditugun gizarte erreferenteetatik hara, Korrikako zuzenekoan hainbat elkarteko kideren zein herritarren ahotsak entzuten dira, bazterrean gelditzen diren ahots horietakoak hain zuzen. Ondorioz, aniztasuna eta bazterrekoa erdigunera ekartzea, hori da zuzenekoaren bidez egiten dena, Korrikak berak ere ahalbidetzen duen heinean.

Orotorikoa izan daiteke zuzenekoaren garrantzia entzuleen artean. Argi geldi dadin orduan, Ipar Euskal Herrian zuzenekoak bi publiko motari eragiten diola. Batetik, euskal hiztunak zuzenekoa entzuterakoan “kontent” agertzen dira, nolabait hatsberritzen joaten dira eta, Korrikan parte hartzeko motibazioa ez dute galtzen. Orain, Korrika bera ere bezalaxe, zuzenekoa sentsibilizazio tresna da erdaldunentzat. “Harrotasuna” transmititzen da Korrikatik, gizarte osoari erakusteko euskararen alde ekitaldi erraldoiak egiten ditugula eta, euskarak “gauza anitzentzat” balio duela. Zuzenekoak ahalbidetzen du erakustea gure hizkuntzari “estatus soziala” ematen diogula. Irratietako orotariko entzuleentzat, zuzenekoak badu bere pizua eta “xede zirikatzailea”.

Atxikimendua sortzeko tresna eta giroa berotzeko baliotsua izanik, zuzenekoak berak Korrikak bezalaxe, sortzen duena deskriba ezina da. Pasioz landuriko zuzenekoak egiten dira eta *streaming* bidezko zuzenekoa nehoiz baino indar handia hartzen duen garaiotan, onar dezagun irratiake detaile anitz ematen dituela *streaming* bideoari konparaturik. Alabaina, tokian tokikoa kontatzea ahalbidetzen duen heinean, aipa daiteke irratia bidezko zuzenekoak, lasterka ibiltzeaz aparte, tokia bera mintzarazten duela, uhinen bidez transmitituriko soinuen orotariko interpretazioa sustatuz. Neurri batean, zehatzagoa da irratia. Ondorioz, irratiake entzulego fidela atxikia duen heinean, uhin bidezko zuzenekoak ez ditu bere funtzioak galduko, nihundik ere ez.

## **6.Ondorioak**

Euskal Irratiak sareko irratia herriak sorturiko komunikabideak dira. Parte hartzaileak izateaz gain, ekonomikoki ahalmen guti duten irratia dira, frantsesaren hegemonia mediatikoaren aurka sortu zirenak. Bortxaz, hizkuntza hegemonia baten kontra sortu badira, erran gabe doa bazterreko ahotsei ematen dietela lehentasuna, euskara eta euskal hiztuna erdigunera ekarriz. Euskara eta euskal hiztunak alternatibotzat jotzen badira, erdaren hegemoniatik hara abian dira, Korrika gertakari sozial gisa ere alternatibotzat eta parte hartzailetzat har genezakeen moduan.

Alternatibotasunaren definizio guziak betetzen dituen heinean, Korrikak erakusten du komunitate bat arnasberritzeko ahalmena duela. Euskal hiztunok behar dugun gertakari handi horren bidez, hiztun minorizatu gisa eramaten ditugun frustrazio guziak bazterrean utzi eta elkarreragin emozionalaren bidez Korrikak transmitituriko indarra, lotura eta emozioaren eraginez indarberritzen, lotzen eta saretzen gara. Justuki, Korrikaren hiru hitz gako hauek barneraturik, irratietako zuzeneko segipenak arnasberritze kolektiboan rol bat jokatzeko duela erakuts daiteke. Batetik, irratia bidezko zuzenekoak kilometro kilometro informatzen duelako jendea: kilometroen arteko lotura sortzen du zuzenekoak eta entzuleari Korrikaren informazioa kasik gelditu gabe eskaintzen diolako.

Elkarrizketen emaitzen arabera, irratiko zuzenekoak berak edozein ekitaldira indar handia ematen dio entzulea bertan sentiarazteko. Emozioa eta indarra transmititzeaz gain, ekitaldiaren parte izatearen sentazioa transmititzen du zuzenekoak izan euskal hiztunontzat edota euskaratik hurbil ez den jendearentzat. Gainera, herri hedabideak nortasun transmititzaile izateaz gain, botere informatiboa eraikitzen dute. Botere informatibo horren bidez, ahalduntze kolektiboa laguntzeko tresna izaten da zuzeneko segipena, Korrikaren kasuan. Funtsean, bertze ekitaldi kolektibo handien kasuan ere, zuzenekoak egiten dira. Adibidez, Herri Urrats edo Nafarroaren Eguna. Hain hitzordu eta elkargune garrantzitsuak transmititzea izaten da kazetarion misioa, jakinean izan edo ez izan, kolektibo baten indartzean eragin soziala dugula.

Orduan, Korrika bezalaxe, irratiko zuzenekoak euskal hiztunon arnasberritzean eragiten du baina baita euskara ez dakien jendearengan ere, sentsibilizazio tresnaren funtzioa hartuz. Orotariko gizarte batean bizi garela kontutan harturik, bazterretatik erdigunera pixkanaka-pixkanaka bilduriko uhain sozial berriari ongi etorria egin diezaiozun, ahantzi gabe Korrika euskararen aldeko lasterketa dela eta horretarako, euskarak berak luzaz bizi behar duela Korrikak bizi behar badu; bazterrean utzi gabe, lan ezin eskertua egiten duten herri hedabideak.

## **7. Erreferentzia bibliografikoak**

Atton, C. (2002). *Alternative Media*. Sage.

Amezaga, J. (2009). Talde nortasunak eta komunikabideak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (72), 41-50.

Azurmendi, J. (1998). *Hizkuntza eta talde-nortasuna*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Barranquero, B, Sáez Baeza, C. (2010). *Comunicación alternativa y comunicación para la cambio social democrático: sujetos y objetos invisibles en la enseñanza de las teorías de la comunicación*. Congreso Internacional AE-IC (291). Asociación Española de Investigación de la Comunicación.

Del Valle, T. (1989). *Korrika, rituales de la lengua en el espacio*. Anthropos Editorial del Hombre.

Denzin, N. K., y Lincoln, Y. S. (2005). *The Sage Handbook of Qualitative Research*. Sage.

Durkheim, É. (1893/1933). *The division of labor in society*. The Free Press.

Durkheim, É. (1897/1952). *Suicide: A Study in Sociology*. Routledge and Kegan Paul.

Durkheim, É. (1912/1915). *The elementary forms of religious life*. Georges Allen & Unwin.

Eiroa, M, Barranquero, A. (2017). *Métodos de investigación en la comunicación y sus medios*. Editorial Síntesis.

Fontaine, G, Deirdre, K. (2016). *Mavise extra, media ownership: towards Pan-European groups?*. European audiovisual observatory.

García, C. (2012). Comunicación y desarrollo en América Latina, temas y problemas de comunicación. *Publicación del Departamento de Ciencias de la Comunicación y del Centro de Investigaciones en Comunicación (CICOM), Facultad de Ciencias Humanas*, (14), 47- 60.

Graziano, M. (1980). Para una definición alternativa de la comunicación. *Revista INNINCO*, 1-6.

Grinberg, S. (1986). *Comunicación alternativa y cambio social*. Premià.

HEKIMEN (2012). *Herri Ekimeneko Euskal Hedabideak*.  
<https://hekimen.eus/wp-content/uploads/2014/03/HERRI-EKIMENKO-EUSKAL-HEDABI-DEAK-txostena.pdf>

Holt-Lunstad, J, Smith, T, Baker, M, Harris, T, eta Stephenson, D. (2015). Loneliness and Social Isolation as Risk Factors for Mortality: A Meta-Analytic Review. *Perspectives on Psychological Science*, 10 (2), 227–237.

<https://doi.org/10.1177/1745691614568352>

Holt-Lunstad, J, Smith, T, eta Layton, J. B. (2010). Social relationships and mortality risk: A meta-analytic review. *PLoS Medicine*, (7).

<https://doi.org/10.1371/journal.pmed.1000316>

Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Mattelart, A. (2014). *Por una mirada-mundo. Conversaciones con Michel S en ecal. Un recorrido por la trayectoria de uno de los grandes te ricos de la comunicaci n y la cultura*. Gedisa.

Mc Quail, D. (1994). *Mass Communication Theory: an Introduction*. Sage.

Mendel, T, García Castillejo, A, Gómez, G. (2017). Concentration of media ownership and freedom of expression: global standards and implications for the Americas. *Cuadernos de discusión de comunicación e información*, (7), 9-25.

Navarro Nicoletti, F, Rodríguez Marino, P. (2018). Aproximaciones conceptuales: comunicación popular, comunicación comunitaria y comunicación alternativa. *COMMONS, Ciencias Sociales y Comunicación*, (7), 37-66.

Poveda, T. (2020). *There is an alternative. Expériences de la pensée radicale et de l'agir pragmatique au Pays Basque Nord*. (Doktorego tesia). Université de Pau et des Pays de l'Adour, Euskal Herria. <https://theses.fr/2020PAUU1120>

Rimé, B, Páez, D. (2023). Why we gather: A new look, empirically documented, at Émile Durkheim's theory of collective assemblies and collective effervescence. *Perspectives on Psychological Science*.

<https://doi.org/10.1177/17456916221146388>

Rodriguez, F. (1994). Hizkuntza gutxiagotuetako unibertsitateen eredu soziolinguistikoa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (14), 136-145.

Royal Comission on the Press (1977). *Periodicals and the Alternative Press*. HMSO.

Schuman, P. (1982). Libraries and Alternatives. *Alternatives Materials in Libraries*, 1-5.

Taylor, S, Bodgan, R. (2002). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Paidós.

Task Force on Alternatives in Print (1980). *Alternatives in Print: an International Catalog of Books, Pamphlets, Periodicals and Audiovisual Materials*. Mansell.

Uranga, W. (2009). La comunicación comunitaria: proceso cultural, social y político en Construyendo Comunidades. Reflexiones actuales de la comunicación comunitaria. *La Crujia*, 179-189.

Urkiza, A (2021). *Garen hori*. Elkar.

## **8. Eranskina**

### **8.1 Jojo Bidarteren elkarrizketa**

#### **SARRERA**

Hedabide alternatiboak dira hegemoniatik ateratzen diren hedabideak. Adibide gisa harturik, bertze negozio eredu bat dutenak, hedabide alternatiboak lirateke. Bertzelako agenda informatiboa ere dute hedabide alternatiboek, anitzetan tokian-tokiko agenda dena eta lurraldeari lotua. Bertze ahots mota batzuei lotzen da alternatiboa dena, gure kasuan euskal hiztunen ahotsa litzateke alternatiboa, erdaren azpian dagoen hizkuntza minorizatua, hots. Honen harira, Euskal Herria bere osotasunean harturik, 200 hedabidetik goiti dira. Hori harrigarria da hain eremu geografiko ttipi batentzat. Eta horien artean hedabide alternatiboak deiturikoak badira, Euskal Irratien kasua dena, dudarik gabe.

Ene helburua da lan honetan Ipar Euskal Herriko irratietan Korrikako zuzenekoak euskal hiztunen komunitatean duen eraginaz jabetzea pixka bat eta hori ulertzeko irratietako zuzeneko segipenak hautatu ditugu.

#### **SORRERA**

##### **1-Hasteko, Irulegiko irratia, irratia alternatiboa denez, azalduko didazu pixka bat nola sortu zen, noiz sortu zen eta zer xederekin?**

Ni lehenagotik ari izana naiz *Radio Adour Navarre* delakoan, Baionan zena. Bagara andana bat handik pasatuak: Pantzo bera, Bernadette etab. Erdi ipurdiko irratia, erdi pirata zena, ez arras, zeren karrikara joaten ginen eta ez ginen segituak. Ohartu ginen pixkanaka, irratia zela tresna ikaragarria euskararen erabilpena zabaltzeko eta euskal komunitatearengan eragiteko. 1981ean aukera sortu zen. Gure irratia sortu zen eta gu 1981eko urrian prefekturara eraman genituen paperak. Behin azaroan baimen ofizialak ukanik, 1982ko urtarrilean lehen emankizunak hasten ditugu.



Hor gira abiatzen, Irulegiko Mentan, lagun baten etxean. Lehenik, ganbara bat moldatzen dugu eta, gero zonbat hiltateren buruan arditegian sartu ginen. Laguntzaileen artean dena muntatu ginuen, estudio bat eta gela bat muntatu ginituen. Tokiko irratia: pobrea baina eraginkorra azken finean. Hastapenean, antenak artzainaren etxaldearen teilatuan ginituen eta pixkanaka gero mugitzen joan ginen Jarara joaiteko eta han antena finkatzeko.

Laguntzaileen artean ginen hastapenean eta zonbait hiltateren buruan, ni sartu nintzen denbora erdiz irratiko lehen langile gisa. Gero, Pantzo etorri zen eta laguntzaileen sareak eman digu oinarri finkoa. Emankizun egileak ziren laguntzaileak, kolaboratzaileak baino gehiago.

## **2-Ordutik zer aldatu da?**

Aldaketa handienak. Batetik, langile geroz eta gehiago sartu direla. Pixkanaka laguntzailearen figura hori ordezkatu dute. Orain emankizun osoak langileek egiten dituzte. Lehen laguntzaileek egiten zituzten. Interneten jitea ere aldaketa izan zen. Internet bera baino, ordenagailuaren etorrera garrantzitsua izan zen. Gauza anitz erraztu ditu. Saioen muntatzeko adibidez edota zabalkunderako tresna handia da Internet. Materiala ere anitz hobetu da. Etapa handia izan zen antena Jara kaskoan eman genuelarik. Hedadura eman du irratitari. Errepikagailuak aldiz, herri frankotan eman genituen ere: Alduden, Aiherran, Donapaleun.

Beraz, egonkortzea izan da, langileak sartzera irratian eta bertzetik, laguntzaile figura hori atxikiz, herritarrak parte harraraztea proiektuan.

## **DESKRIBAPEN OROKORRA**

### **2-Zer ezaugarri ditu Irulegiko Irratia? Nola deskribatuko zenuke Irulegiko irratia?**

Euskal Herri barnekaldeko irradi libre gisa defini daiteke Irulegiko Irratia. Euskara zabaltzen dugu gure uhinen bidez, hori zen hastapeneko beharra eta jakin dugu betetzen.

### **3-Zenbat langile dira?**

Gaur egun sei langile dira Irulegiko irratia kontu. Izan dira anitzez gehiago. 2002an 10 ginen. Gauzak aldatu dira. Bertze egitura bat da orain. Euskal Irratiak federazio gisa abiatu

zen 1993an. Egun erredakzioa eta diren kazetariak Euskal Irratikoak dira. Emankizun egileak aldiz, tokian tokiko irratietakoak.

#### **4-Nola martxan da horrelako irradi bat?**

Ba xumeki egia erran. Azken finean, erran dizudana: laguntzaile batzuek kazetari rola hartu eta aitzina joan da, pixkanaka profesionalizatuz.

#### **5-Zer diru iturri du Irulegiko Irratiak?**

Irulegiko Irratiak, bertze irratiek bezala FSER (*Fond de Soutien à l'Expression Radiophonique locale*) galdegiten dugu. Kultur Ministeritzari lotua da diru laguntza hau. Hortik diru laguntza egonkorra dugu. Bertze parte Euskararen Erakunde Publikotik heldu da. Horko diru iturria, nagusiki Euskal Irratietara doa. Parte ttipi bat doa tokiko irratietara. Herriko Etxetik ere badugu diru laguntza bat. Parte garrantzitsua laguntzaileen saretik dator. Urte guziz diru bilketa kanpaina egiten dugu. Azkenik, hilabetero diru isurketa egiten duten pertsonak ere baditugu. Publizitate pixka bat egiten dugu baina nagusiki diru laguntzak eta entzuleen babesak du pisu gehien.

#### **6-Zer motatako garrantzia izan du Euskal Irratiak sarea sortzea?**

Hastapeneko motibazioa eta uste dut arrazoin nagusia izaten segitzen duela, denek elgarrekin programazio osatuago bat proposatzea entzulegoari. Zaila da irradi bakoitzak erredakzio propioa ta sendoa izatea. Emankizun interesgarriak izatea ere gure helburuetariko bat zen. Gauza batzuk berrien segitzeko, elgarrekin hartzea errazago zen. Irratia laguntzeko batu ginen sarera baina baita entzulegoari programazio interesgarriagoa eskaintzeko ere. Gaur egun, Goizberri, eguerdiko magazina eta kantu eskaintzak egiten ditugu elgarrekin eta arratsekoa batzuetan ere bai.

#### **7-Teknologia berrien kudeaketa nola egiten da?**

Orain lantzen ari garena da. Konkretuki gaur egun, barneratzen ari gara webgune berri baten bidean gaudela. Irrati bakoitza saretuko du webgune berriak. Orain arte, irradi bakoitzak bazuen bere webgunea. Nahi genuke orduan, Euskal Irratien bitartez, langile bat ari da irradi bakoitzeko arduradunekin mintzatzen, elgarrekin pauso bat aitzina emaiteko. Bertzalde, Euskal Irrati gisa nahi genuke sare sozialetako eduki batzuk ere amankomunean eman. Digitalizazioa gazteen galdea da bereziki; zerbait ekarriko du, eta, egitekotan gauza on bat

nahi genuke egin eta eskaini.

### **8-Zer ekarpen du sareetan egoiteak?**

Twitterren bagaude, Whatsapp kanal bat ere badugu, biziki erabilia dena: belaunaldi berriak zein zaharragoak ere jomugan dira. Instagramenen ere bagaude bai.

### **9-Nolako zabalpena egiten da?**

Twitterretik egiten da gehien zabalpena, kazetarien eta hedabideen artean biziki erabilia baita.

## **KORRIKAKO IRRATIKO EDUKIAK**

### **8-Nola definitu zenuke Korrika sozialki eta kulturalki?**

Alde batetik, erakusleioa da euskararentzat. Bertzetik akulatzailea da Korrika eta bateratzailea da. Ezagutzen ez dutenei ere hunkitzen die Korrikak. Akulatzailea da geroz eta elkarte gehiagok parte hartzen dutelako. Haien parte hartzea ez da mugatzen diru isurketan soilik, Korrikan parte hartzen dute. Korrika ez da akitu. Alderantziz, geroz eta biziago da.

Alabaina, Korrika pasatzen da eta gero bakoitza berera doa. Baina ekitaldi kolektibo horretan posizionamendu bat badago, euskararen aldekoa eta, jendeak parte hartzen du.

Bateratzailea da Korrika, segitzen dugulako eta sare bat delako Korrika. Aspektu anitzetatik baliosa da Korrika.

### **9-Noiz sartu zen Korrikaren segipena Irulegiko irratian? Zergatik?**

Hastapenetik baina ez naiz oroitzen noiz hasi ginen. Oroitzen naizenez, 1985eko Atharratzeko Korrikako hastapen hura. Hori bereziki gogoan dut. Ipar Euskal Herrian parte handian segitu genuen.

Hasi ginen egonkortzen irrati gisa eta teknikoki pixka bat aitzinatzen, emetoreekin. Ez zen mugikorrik, ez deus. Grabatzaile batekin grabatzen genuen grabatu beharrekoa eta telefono kabinetatik sartzen ginen antenara, zuzeneko egiteko. Luzaz horrela segitu dugu funtsean.

Hala ere, oroitzen naiz Xiberoko Botzak haga baten bidez egin zuela antena inprobisatu bat. Irrati hedagailu bat ere eman zuten eta 12 voltako bateria bat ere hori dena martxan emateko. Orduan zuzeneko segipena egin genuen Zuberoan eta Nafarroa Behereko parte batean.

Gertakari garrantzitsua zela ohartu ginen euskararen presentziarako eta horrexegatik nahi izan

genuen zuzeneko segipena egin.

### **10-Korrikak non du leku gehien zuen programazioan?**

Aurten ez dakit sobera zer egin duten. Baina usaian, elkarrizketak egiten genituen aitzinetik. Bai albistegietan eta saio berezi batzuk ere eginak izan dira, Korrika aipatzeko zein Korrikaren kariatara egin diten aitzineko ekitaldiak ere. Zuzenekoa egunaz eta gauaz egiten dugu Korrika Ipar Euskal Herrian delarik. Hastapenetik horrela zen eta horrela segitu izan nahi dugu. Orain, zuzenekoa tartekatzen da bertze zerbaitekin baina lehenago, zuzeneko segipena baizik ez zen: zuzenekoa, kantuak, eta dena segidan. Ipar Euskal Herrian delarik Korrika, segipen jarraitua egiten dugu.

### **11-Korrikak nola aldatzen du irratiko agenda informatiboa?**

Gizartean momentu berezia den heinean, irratian ere momentu berezi hori kontatzeko beharra sortu da. Hori nahi dugu islatu. Momentu berezia da gure programazioan eta badakigu. Nahitara sartzen dugu gainera. Guretzat momentu berezia da baina entzulegoari ere momentu berezi hori transmititzen dugu. Euskararen inguruko besta ospatzeko programazioa ere aldatzen da horren arabera.

### **12-Nola egiten zenuten Korrikaren segipena hastapenetan? Eta orain?**

Aitzinetik egiten genuen, kamioiaren aitzinean. Teknologikoki gauzak aitzinatu dira baina egiteko maneran antzeko pausoak segitzen ditugu. Lehenago aitzina gehiago hartu behar genion kamioiari, grabaketa egin eta telefono kabina bat aurkitu behar genuelako, batik bat. Harat joan behar zen eta grabatutakoa antenan sartu. Funtsean, 1985eko hastapen hartan Xiberoko Botzako antena inprobisatuaren bidez Zuberoan barna egin genuen zuzeneko segipena baina adibidez urrunago egiteko ez zigun balio orduan telefonotik egiten genuen.

### **13-Zuretako, zer garrantzia ukan du Korrikaren zuzeneko segipena egiteak?**

Bagenuen eta kontziente ginen parte hartzen genuela garrantzia handia zuen gertakari batean. Bestak bezalaxe, euskararen besta da Korrika, sekulako alegrantzia eman digu Korrikak. Gauaz eta egunaz aritzeko ez ginuen arazorik hor. Pilak kargatzeko balio digu eta indar bat ematen zuen besta horretan parte hartzeak euskararen biziraupenerako ekitaldia zelako eta delako gaur egun. Motibazioaren aldetik, motibazioa ematen du Korrikak. Elkarte anitz ezagutu ditut Korrikaren bidez, batere ez genituenak ezagutzen. Orokorki, irratia bitartez baina batez ere Korrikaren bidez. Elkarte guziaz ez ditut ezagutzen eta hainbertzek parte

hartzea zinez pozgarria da. Batzuetan desilusia ere bada baina bertze batzuen aldetik sorpresa ere. Poztasunarekin lotzen dut Korrika eta hori beharrezkoa da, Bertsolari Txapelketa Nagusia bezalaxe adibidez.

Horrelako momentuek harrotasuna ere transmititzen dute, ari garen sententzioa transmititzen dugu. Komunitatea hatsberritzeko balio du, dudarik gabe.

#### **14-Zergatik sortu zenuten irratiko zuzenekoak?**

Zuzenekoak badu indar handia, guretzat, kazetariontzat baina entzuleentzat ere. Korrikako irratiko zuzenekoari esker, *streaming* delakoa etorri baino lehen, jendeak entzuten zuen irratia jakiteko Korrika non zen, beha ziren. Irratia zen lotura. Korrikarako lotura irratia zen eta bagenekien. Gaur egun *streaming*-aren bidez egiten da ere.

#### **15-Zer harreman da bertze hedabideekin Korrikaren segipena egiten delarik?**

Garrantzitsua da sare bat osatzea. Euskaraz diren hedabideak geroz eta gehiago dira, hedatuz eta sortuz joan dira. BERRIA adibidez hastapen hartan Ipar Euskal Herrian ez zen gehiegi presente baina orain bai. Euskal hedabideetakoak elkarrekin eta elkarren ondoan aritzea garrantzitsua da, noski baietz, ekar laguntzeko bada ere.

### **ZUZENKOAREN GARRANTZIA**

#### **16-Gaur egun zure ustez Korrikaren zuzenekoak garaiko helburu berak betetzen ditu?**

Bai, helburu berak betetzen ditu.

#### **17-Zer funtzio betetzen du Korrikako segipenak?**

Gure entzulegoarentzat, hastapenean bezala, Korrikaren oihartzuna ukaitea. Korrikaren garrantzia sentiarazi nahi dugu entzuleen artean. Orain, ez gara bakarrik Korrikaren segipena egiten dugunak. Egia da inguruan bideo bidez erakargarriagoa dela.

#### **18-Nola eboluzionatu da zuzeneko segipena denboran zehar?**

Mugikorrek izan zirenetik, afera arrunt aldatu da eta dena erraztu da. IP modua aipatzen da orain zuzenekoak egiteko eta egia da, gaur egun entzule gisa aditu dudalarik Korrikaren segipena, kalitatez anitzez hobea da, jendea ondoan balitz entzuten duzu. Jendeak orain kalitatea galdegiten du. Lehen aldiz, akatsak onartzen ziren entule gisa baina orain ez.

### **19-Zure ustez, zer eragin du Korrikako segipenak entzuleen artean?**

Gure entzuleetan badira euskaltzaleak eta konbentzituak direnak. Orduan horiek kontent dira, pozik. Bertzeentzat entzun dezatela euskararen inguruan gauza garrantzitsuak egiten direla. Gauza handiak egiten direla. Sentsibilizazioa tresna izan daiteke zuzeneko segipena baina baita harrotasuna zabaltzeko tresna ere. Aurtengo lehari lotua ere kar-kar. Badugu hizkuntza bat eta, hizkuntza horrek gauza anitzentzat balio duela erakustek bere garrantzia du eta, batez ere erakustea gizarte oso bat mobilizatzen dela horren inguruan.

Baditugu bertze entzule batzuk, non etxean euskararen transmisioa etetzen ari den. Finean, gure inguruetakoa etxaldeetan euskararik gabe bizi direnak orain. Garai bateko transmisio ezaren gainbeherakada handizki ari da gertatzen oraino. Horientzat, erakuts dezagun gure hizkuntzari estatus sozial bat ematen diogula. Horrek ere balio du. Publiko desberdina badugu, bakoitzarentzat badu bere pizua eta xede zirikatzaila zuzenekoak.

Nazio ikuspegia ere ematen du Korrikak, lurralde osoa lotzen baitu eta josten baitu.

### **20-Korrikaren irratiko zuzeneko segipenak galdu ote du bere funtzio nagusia sare sozialen erabilera geroz eta handiarengatik?**

Ez. Entzule atxikiak ditugu eta atxikiak diren heinean segipenaren funtzioa ez da galduko. Entzuleak izanen diren heinean, ez da galduko uhin bidezko segipenaren funtzioa.

## 8.2 Allande Etxarteren elkarrizketa

### **SORRERA**

#### **1-Hasteko, Xiberoko botza, irratia alternatiboa denez, azalduko didazu pixka bat nola sortu zen, noiz sortu zen eta zer xederekin?**

1982ko agorrilaren 15ean ez banaiz oker ibiltzen. Guretzat 1985a garrantzitsua izan zen, batetik Aharratzen egin zelako Korrikaren hasiera urte horretan eta bertzetik, Xiberoko Botzan langile gisa lehena izan zelako Marcel Bedaxagar. Laguntzaileek zituzten emankizunak egiten ordura arte. Desberdina zen bertze irratiegandik Xiberoko Botza. Alde batetik, abertzaleok edota euskaltzaleok sortu ginuen irratia baina ez bakarrik. Sozialistak ere hor ziren irratia soreran, frantsesak zirenak. Garaian bizitzen genuen boikot bat, *Sud Ouest* egunkariarengandik baina baita *Miroir de la Soule* egunkariarengandik ere.

Boikotatzen zituen euskaldunak eta sozialistak. Bizitzen genuen itomen sentsazio bat. *Sud Ovesten* boikota saihesteko, jendeak Xiberoko Botza entzuten hasi zen. Kontra hegemonikoa zen Xiberoko Botza garaian, horregatik sortu zen. Sindikatuek ere emankizun batzuk egiten zituzten adibidez. Protestatzeko lekua zen eta hegemoniatik kanpo gelditzen ziren ahotsak entzuteko. Garaiko borroka sozialei ahotsa emaiten zien Xiberoko Botzak. Hortik sortu da irratia. Elebiduna zen irratia, frantsesez eta euskaraz egiten zen Xiberoko Botzan. 1985ean erabaki zen langile baten hartzea, euskarazko irratia egiteko. Guretzat salto garrantzitsua zen hori, euskarari gehiengoa emateko. Lokalez aldatu ginen, Mauleko lokalera etorri ginen. Erran behar da ere, Xiberoko Botzaren egituraketa administratiboa Uhaitza elkarteak eramaten zuela. Kultur elkarte horrek txosten bat idatzi zuen diru pixka bat lortzeko. Ni nintzen teknikari gisa aritzen Xiberoko Botzan hortxe. Nik ez nuen emankizunik egiten, konponketak egiten nituen orduko materialean.

## **2-Ordutik zer aldatu da?**

Bai aldatu dira gauzak. Elkarrizketak egiteko zuzenekoetan adibidez. 1985eko Korrikaren kasua harturik, elkarrizketatzen zuten pertsona bat kamioia pasa aitzin eta joaten ziren telefono kabina batera irratiko antenan sartzeko, biziki kalitate txarrekoa zen hori. Telefonoaren bozgaragailutik telefono kabinako telefonora hurbiltzen zuten eta horrela egiten zen zuzeneko. Aldaketa handiak izan dira kalitateari doakionez. Lehen, kaseteak ziren. Gero etorri ziren CD-ak eta mini diskak ere bai. Grabaketak *rayvox* deitutakoetan sartzen ziren. Gaur egun artxiiboak dira *rayvox* makinetan baina egia da makina handia zela eta leku anitz hartzen zuela, ez zen praktikoa.

Lehen urteetan euskaldunenganik bazen irratiarekiko kriston atxikimendua. Gaur egun aldiz jendeak normalizatu du irratia badela eta existitzen dela, harekin handitu da. Jendea ez da ohartzten lehen ez zegoela euskarazko irratirik, horretan aldatu da ere irratia atxikimendua.

## **DESKRIBAPEN OROKORRA**

### **2-Zer ezaugarri ditu Xiberoko Botzak? Nola deskribatuko zenuke Xiberoko Botza?**

Erran behar da denbora berean ikastolako guraso nintzela ere. Lehen emanaldia egin genuen, elebiduna zen hura: ikastolako pedagogiaz. Beraz, euskarazko ikastolaren gogoeta bazegoen garaian baina zer motatako ikastola nahi genuen ere bai, pedagogiaren aldetik. Irratia berdin,

euskarazko irratia baina nolako irratia. Zer libertate hartu edo ez hartu? 1978 inguru, ez naiz oroit xuxen noiz baina Zuberoarekin *Contrat de Pays* delakoak eraman ziren eta, kriston gogoeta egin zen laborantzaz, eredu ekonomikoaz. Finean, dirulaguntza handiak ere heldu ziren eta kooperatibak sortu ziren, Axuria bezalako adibidez.

Euskarazko irrati generalista zela erraten genuen, erran nahi baitu tema guziak jorratzen genituela. Adibidez, Gure Irratiarekin garaian, eskola sartzeetan gatazkak genituen, haiek ikastolako sartzea egiten zutelako bakarrik baina ez dago ikastola bakarrik, bertze eskolak ere kontutan hartu behar ziren gure ustez. Zerbitzu publiko bat da, euskarazko zerbitzu publikoa. Euskarazko irrati bakarra da. Xiberoarentzat funtsezkoa da, euskararen zabalpenean egiten duen lana ikusita.

### **3-Zenbat langile dira?**

Bortz langile dira Xiberoko Botzan. Gazteak dira eta zinez ongi da.

### **4-Nola martxan da horrelako irrati bat?**

Kazetari batzuk ari dira lanean, Euskal Irratiak sarearen izenean. Bertze batzuk aldiz, tokiko irratia gain izanik; erranen nuke irratia teknikoki hobetuz joan dela denboran zehar. Sinpleki funtzionatzen du Xiberoko Botzak.

### **5-Zer diru iturri du Xiberoko Botzak?**

FSER diru laguntza galdegiten dugu, entzulearen babes ekonomikoa du Xiberoko Botzak ere.

### **6-Zer motatako garrantzia izan du Euskal Irratiak sarea sortzea?**

Biziki kontent nintzen sarea sortu zelarik. Parte hartu nuen Euskal Irratien sarean. Diru publikoa ukaiteko erraztasunak ukan genituen. Lehen, *Anglet FM*-ek eramaten zuen diru publiko anitz eta, Bayrou jauna departamentuko kontseilari zelarik, harek zatiketa hau hautsi zuen eta tokiko irratiei, denei berdin banatzea erabaki zuen. Horri helduta, diru publikoa lortzeko galde bakarra egin behar izan genuen eta horregatik sortu zen Euskal irratia sarea. Tokiko programa eta amankomuna garatu genuen geroztik, elkarrekin.

### **7-Teknologia berrien kudeaketa nola egiten da?**



Facebook, Instagram, Youtube eta X-an gara. Egun guziz zerbait publikatzen entseatzen gira.

### **8-Zer ekarpen du sareetan egoiteak?**

Ekarpen handia, publiko zabalago bat lortzeko balio baitute sareek.

### **9-Nolako zabalpena egiten da?**

Saiatzen gara egun guziz publikatzen ditugun gaiak baita etortzen diren berri batzuk ere.

## **KORRIKAKO IRRATIKO EDUKIAK**

### **8-Nola definitu zenuke Korrika sozialki eta kulturalki?**

Uholde soziala da Korrika, saldo handia. Bagenekien Korrika bazela, prentsan irakurri genuelako. 1985ean aldiz, Atharratzeko plazatik abiatu zen eta oroitzen naiz Piellenia ostatuko terrazan nintzela, fabrikatu nuela horrelako soinu ekipo bat zuzeneko segipena egiteko. 150 bat pertsona bazela erranen nuke Korrika hortako partitzean eta kontent ginen. Ez zen orain bezain handia Korrika, ez zen uholdea lehen, orain bai, uholde soziala da Korrika. Garaian, ikastolaren eta AEK-aren inguruko jendea batzen zen, orain aldiz ez. Euskal militanteen afera izan zen. Atharratzeko abiatzea garrantzitsua izan zen, langabeziaren kontrako aldarriak ere bazirelako egun hartan. Espartingintzaren krisia zen eta elkarte bat bazegoen borrokatzen zena langabeziaren kontra.

Gertakari sozial bat da. Kanpaina bat da ere. Pertsona anitzek orain, nahiz eta dinamikan parte hartu, erran dezaket hortik eta inplikazio, aldaketarako gaitasuna batzuegan ea ez den apalegia. Alegia, Korrikan parte hartzen du Mauleko errugbi taldeak. Baina gero ez dute ezta indar izpirik egiten euskara txertatzeko.

Sentsibilizazio tresna ere bada. *Euskaraz eta kitto!* banderola bazen Atharratzen, abiatzean.

Militanteak direnak batzen eta indartzen ditu Korrikak. Eta bertzeak ere bai, erdalduna dena ere euskarara hurbiltzera ahalbidetzen du. AEK-k lan anitz egiten du hori gerta dadin. Hala ere, Euskal Herria eta euskal militantzia komunitate *gay* bat bezala definitzen dut. Hots, jendea oso konzientziatua badela baina badela jendea nahiz eta hemen bizi, kulturarekiko eta hizkuntzarekiko guziz aparte direnak. Korrikak hainbeste leku hartzen du egun aldiz, hauek

ere minimoki etorriko direla Korrika ikustera.

Pastoralak sortzen duen antzekoa litzateke. Parte hartze idekia du Korrikak. Herri guzia parte harraratzen du pastoralak adibidez ere, dudarik gabe.

### **9-Noiz sartu zen Korrikaren segipena Xiberoko Botzan? Zergatik?**

1985ean hasi zen eta geroztik betidanik egin da. Korrika pasa aitzin programazioan bazuen lekua Korrikak baina baita Korrika pasa ondotik ere. Programazioan leku handia zuen bai, albistegietan pasatzen zelako baita elkarrizketa batzuen bidez ere.

### **10-Korrikak non du leku gehien zuen programazioan?**

Berri sailetan eta, aparteko zuzeneko segipenean egiten diren elkarrizketetan du leku gehien Korrikak.

### **11-Korrikak nola aldatzen du irratiko agenda informatiboa?**

Anitz aldatzen du bai, leku handia hartzen duelako Korrikak gure lurraldean, Euskal Herrian. Orduan agenda informatiboa gelditzen zen kasik, baina ez guztiz, eta, Korrika txertatzen zen.

### **12-Nola egiten zenuten Korrikaren segipena hastapenetan? Eta orain?**

Ni laguntzaile nintzen irratian. 1985ean, Atharratzen adibidez, nire antena inprobisatuarekin egiten ahal zen zuzeneko aski errazki. Uhinak eremu horretan zabaltzeko balio zuen, dudarik gabe. Bestenaz segipena, erran dudan bezala lehenago ba telefono kabina bidez egiten zen. Hastapen hastapenean horrela zen. Orain aldiz, mugikorrak badira hori egiteko, gaur egun erraz egin daitekeen gauza da, dudarik gabe.

### **13-Zuretako, zer garrantzia ukan du Korrikaren zuzeneko segipena egiteak?**

Bizipen ona dut, bai, bistan dena. Lehen, zailtasuna zen kilometro orotan norbait izatea lasterka egiteko. Oskaxeko lepoan adibidez, pertsona berek egiten zituzten kilometroak, hori biziaraztea zuzenekoaren bidez, azkarra izan da eta nik bizi izan dut hori. Aitzinamendua izan zen zuzeneko segipena sartzea, jadanik egiten ziren zuzenekoak, ekitaldietan.

Xiberoko jendea entzuten zen eta bere iritzia ere hartzen da. Xiberotarrak, lekukoak entzuten ziren eta tokia ere entzuten zen. Sorpresa handia hartzen nuen jende bat, lehenago euskaltzalea ez zena orain Korrikara hurbiltzen delarik. Korrikaren garaian jende anitz mintzo

da mikroan eta, urtez urte jendea aldatzen joaten da eta aniztasuna ere islatzen zen irratian. Jende berria eta euskal mundutik hurbil ez zen jendea elkarrizketatzea izan da garrantzitsua ere zuzeneko segipenean.

#### **14-Zergatik sortu zenuten irratiko zuzenekoa?**

Indarra emateko ekitaldiei oro har. Ez baita gauza bera kronika bat egitea edo zuzeneko kontakizuna egitea, anitzez indar gehiago du zuzenekoak.

#### **15-Zer harreman da bertze hedabideekin Korrikaren segipena egiten delarik?**

Ona, zinez, elkar laguntzeko giro aproposa.

### **ZUZENEKOAREN GARRANTZIA**

#### **16-Gaur egun zure ustez Korrikaren zuzenekoak garaiko helburu berak betetzen ditu?**

Bai, guziz. Hori bai ez da aldatu, batere.

#### **17-Zer funtzio betetzen du Korrikako segipenak?**

Sinpleki, Korrika kontatzea ahalbidetzen zuen zuzenekoak bere indar guzia izanki.

#### **18-Nola eboluzionatu da zuzeneko segipena denboran zehar?**

Kalitatea anitz hobetu da. Nik erranen nuke materialen aldetik gauzak erraztu direla. Horretan da hobetu zuzeneko segipena eta bistan da, gaur egun *streaming* bidez segitzen ahal dela Korrika, hori jauzi ikaragarria da ene ustez.

#### **19-Zure ustez, zer eragin du Korrikako segipenak entzuleen artean?**

Jendea lotzen du zuzeneko segipenak. Kilometro batetik bestera egiten du lotura zuzeneko segipenak. Lehen, jendeak pizten zuen irratia jakiteko nondik zebilen Korrika. Irratia piztua autoan eta emozioa ere sortzen du Korrikak.

#### **20-Korrikaren irratiko zuzeneko segipenak galdu ote du bere funtzio nagusia sare sozialen erabilera geroz eta handiarengatik?**

Ez. Tokian tokikoa kontatzen du irratiak. Ez du galtzen bere funtzioa. Irratian anitzez informazio gehiago ematen ahal da tokiari eta jendeari doakionez. Xiberoan pasatzen zelarrik tokiko jendeak entzuten zuen irratia Korrikaz informatzeko. Gero, tokian bertan irratiak beti

atxikitzen du indarra.

### 8.3 Franck Dolosorren elkarrizketa

#### **SORRERA**

##### **1-Hasteko, Gure Irratia, irrati alternatiboa denez, azalduko didazu pixka bat nola sortu zen, noiz sortu zen eta zer xederekin?**

Sorreran ni ez nintzen egon. 1981ean sortu zen Gure Irratia. Ni 1996ean sartu eta hiru urtez egon nintzen. Etxean ez ginuen batere euskarazko irratia kontsumitzen. *Radio France Pays Basque*, *RTL* eta *Europe 1* aditzen genituen nagusiki etxean, berantago etorri zen Euskadi Irratia. Ni lizeoa bukatzen ari nintzelarik, azken urtean nahi nuen kazetaritza ikasi, hori 1996ean zen, uste dut. Iruditzen zitzaidan lanbide biziki interesgarria zela eta aldi berean euskara sustatzeko balio zuela. Lana bilatzen ari nintzen eta Gure Irratian sartu nintzen. Garai hartan hiru lagun ziren irratiari: Xipri Arbelbide, Luzien Etxezaharreta eta Mattin Larzabal. Hiru horiekin aritu nintzen ni eta oroitzen naiz Mattin Carrere eta Maite Idirinek egin zidatela kontratua. Entzun Ikus eta Erantzun deitzen zen irratiaren elkarteak. Anitz lagundu ninduten hiruek, proiektu guztietan lagundu zidaten. 18 urte nituen eta horrela hasi nintzen. Berriketari izanez, ikasten duzu zer den Euskal Herria eta hori zorion handi-handia da, zinez. EHZ Arrosan zelarik ere oroitzen naiz. Formakuntza lanari buruz, baina pertsona eta herriari buruz arrunt interesgarria zen.

##### **2-Ordutik zer aldatu da?**

Aldaketa teknologikoa izan da. Kasetearekin hasi nintzen. Mini diska etorri zen ondotik eta Gure Irratia utzi nuelarik oroitzen dut ordenagailuak sartu zirela.

#### **DESKRIBAPEN OROKORRA**

##### **2-Zer ezaugarri ditu Gure Irratiak? Nola deskribatuko zenuke Gure Irratia?**

Lehen eskola izan da Gure Irratia enetzat. Denbora berean lanean eta zaletasuna uztartu zuen lekua da. Orain ere maite dut Gure Irratia. Zerbitzu publiko bat da Gure Irratia, instituzioek ez dutelako egiten. Hori biziki garrantzitsua da, osoki euskaraz egiten baitu Gure Irratiak, 24

orenez. Hori funtsezkoa da euskal hiztun komunitatearentzat, arnasmune bat da. Euskalduntzeko tresna da.

### **3-Zenbat langile dira?**

Entzun Ikus deituriko elkarteak kudeatzen ditu Antxeta Irratiko langileak eta Gure Irratikoak. Gure Irratian hiru langile dira.

### **4-Nola martxan da horrelako irrati bat?**

Garaian behintzat, gogo handiarekin parte hartzen nuen irratian. Horrek egiten zuen irratiak: gogoak.

### **5-Zer diru iturri du Gure Irratiak?**

FSER eta entzuleen babesa nagusiki.

### **6-Zer motatako garrantzia izan du Euskal Irratiak sarea sortzea?**

Programazio bateratua egiteko eta dirulaguntzak galdegiteko sortu zen Euskal Irratien sarea.

### **7-Teknologia berrien kudeaketa nola egiten da?**

X-an, Facebook eta Instagramen gaude.

### **8-Zer ekarpen du sareetan egoiteak?**

Elkarrizketak eta kronikak zabaltzen ditugu gehienik, FM-an zabaltzen dugu. X-an aktualitateari erantzuten diogu.

### **9-Nolako zabalpena egiten da?**

Egun guziz zabaltzen ditugu gauzak sareetatik. geroz eta leku gehiago ari gira ematen sareei, publiko mota desberdinak hunkitzeko.

## **KORRIKAKO IRRATIKO EDUKIAK**

### **8-Nola definitu zenuke Korrika sozialki eta kulturalki?**

Soka bat lotzen da Korrika denboran, sare bat da eta hori bereziki interesgarria da. Ikusten da herri bat badela. Korrikan ongi agertzen da herria. Gogo hori geroz eta handiagoa da. Kartsuki bizitzen da gogo hori. Seguraski, hain da frustrazioa duela hain desberdinak. Orain,

aitzina egin ditugu lau pauso baina gibelera bertze hamabost ene ustez. Anartean milaka plataforma eta sare sozial sortu dira, masa hegemonikoa handitu da.

Munduan den gauzarik ederrenetakoa. Korrikak ongi erakusten du zer den euskaldun izatea erronka aldetik. Egiazki erokeria da Korrika. Aldarrikapen bat duzularik manifestazioa bat egiten duzu. Baina zer zentzu du 02:30tan mendi puntan lasterka egitea? Hor bada elkartasuna eta lotura biziki emozioagarria. Aspaldi du zerbait sortzen didala Korrikak. Geroztik, beti segitzen dut Korrika. Euskalduna izatea da bertsolaria izatea, bertsoak dena baitu. Sorkuntzatik badu, ohoretik, frustraziotik etab, bertsolaritzak bezala eta euskara badu, Korrikak bezala. Aniztasuna da Korrika, jende frankok parte hartzen duelako Korrikak. Ba ote da ekitaldi bat Euskal Herria zeharkatzen duena herriz herri eta auzapez bakoitza zein elkarte garrantzitsuenak inplikarazten dituenik? Enetzat ez. Korrikak ahalegintzen du hori.

Aldatu da Korrika, ikaragarriko tropa biltzen baitu gaur egun Korrikak. Senperen ezagutzen ez nituen jendeak ere Korrikan lasterka egiten du orain. Haur eta gazte anitz.

Erdaldun parrasta batek parte hartzen du: ez dira euskararen kontra, erdaldunak hurbiltzen dira orain. Hori biziki garrantzitsua da. Masa handia ikusten da. Zeharkakoa da. Senperen adibidez, hiru talde dira Herriko Etxean eta hiruek parte hartzen dute: sentsibilizazio tresna bat da.

Uste dut oraino gehiago egin dezakegula, euskara hutsean egiten da Korrika baina erdaldunei buruz falta da oraino pauso batzuk egitea. TVPI telebistan adibidez, Korrikako publizitatea bakarrik euskaraz egina zen baina jende anitzek ez daki euskara hemen.

### **9-Noiz sartu zen Korrikaren segipena Gure Irratian? Zergatik?**

Bere sortzetik sartu da zuzeneko segipena. Ez dakit xuxen.

### **10-Korrikak non du leku gehien zuen programazioan?**

Berri sailetan eta hamar minutuko tarteak goizean, eguerditan eta arratsaldean.

Tarte zabalak genituen. Goizeko 07:00etako berri sailetatik ondotik 10 minutu, eguerdian eta arratsaldean ondotik.

### **11-Korrikak nola aldatzen du irratiko agenda informatiboa?**

Kronikak egiten ziren Korrika pasatzen zelarrik Ipar Euskal Herritik. Segipenaz aparte, kronika garrantzitsuak egiten genituen. Oroitzen dut Arabako Errioxan, haurdun zegoen emazte batek nahiz eta euskara ez jakin, 300 metro egin zituela Korrikan, aldarrikatuz sortuko zen haurrak jakinen zuela euskara. Ezin dituzu ahantzi horrelakoak. Iurretako garaiko EITBko egoitzaren ondoan Maddalen Iriarte elkarriketatu nuen.

### **12-Nola egiten zenuten Korrikaren segipena hastapenetan? Eta orain?**

1999eko Korrikaz oroitzen naiz batez ere. Euskal Irratietatik Maite Davant zuberotarrak parte hartu behar zuen AEKko prentsa bulegoan. Baina azkenean, ez dakit zer gertatu zen baina niri galdegin zidaten parte hartzea. Horrela sartu nintzen Korrikako zuzeneko segipena egitera. Biziki atsegina izan zen. Zortzi lagun ginen 1999ko martxoan. Bi auto ginen. Lau AEKkoak ziren eta haiek konexioak egiten zituzten prentsarentzat. Bertze lau, *Egunkaritik* Arantxa Iraola, *Egin* egunkaritik Roberto, *Cadena Ser*-entzat Eva Caballero eta ni Euskal Irratientzat. Eva Caballero geroztik ene bikotekidea da, Radio Euskadin da gaur egun. Orduan ezagutu nuen.

Gure Irratian, lehen kronika telefono kabinetatik egiten genituen. Zortea izan genuen teknikalari ona genuelako. Gure laguntzera etortzen zen. Telefono finko bat eraiki zigun, entxufe batekin. Kutxa baten gisakoa zen eta horri lotzen zenion grabagailua. Egunean zehar eginikoak sartzen genituen hemen. Hau ikaragarritzko jauzia izan zen. Mini diska etorri zen garai horretan. Oroitzen naiz Hegoaldera joaiteko entxufeak ez zirela berak eta adaptatore bat egin zigula, aitzinamendu handia hau ere.

8:00etan gosaltzen genuen. 09:00etan hartzen genuen Korrika. Kamioian zirenak erraten ziguten gaua nola pasa zen. Kronika egiteko baliagarria zen hori.

### **13-Zuretako, zer garrantzia ukan du Korrikaren zuzeneko segipena egiteak?**

Zuzenekoa da indarra. Gakoa da. Harremanak sortzen dituzu, tokian berean zira. Orduan, lekua eta kubritzen duzuna zuzenean ezagutzen dituzu. Podcast anitz badira orain baina zuzenekoak transmititzen duenak ezin da neurtu. Murgiltzen zaitu ekitaldian.

### **14-Zergatik sortu zenuten irratiko zuzenekoa?**

Korrikari eta ekitaldiei oro har indarra emateko. Ez da gauza bera ekitaldi baten zuzeneko segipena egiten duzularik edo bakarrik berri sailetan aipatzea.

### **15-Zer harreman da bertze hedabideekin Korrikaren segipena egiten delarik?**

Biziki ona, elkar laguntzen genuen garaian eta orain ere, hala da. Hala ere, *Cadena Ser* etorri zen bezala 1999an, uste dut garrantzitsua dela Frantziako hedabide gehiago etortzea ere Korrika aipatzera. Garai hartan, oroitzen dut TF1 etorri zela emankizun baten egitera. Eva Caballero euskaldun berria zen eta begira, balio izan zaio Korrikan murgiltzeko.

Ezagutzak egiteko parada izan da elkarrekin lan egitea eta bertzeek nola lan egiten zuten ere ikusi nuen. Prentsa idatzian zirenak adibidez, gauean egiten zuten den-dena.

## **ZUZENKOAREN GARRANTZIA**

### **16-Gaur egun zure ustez Korrikaren zuzenekoak garaiko helburu berak betetzen ditu?**

Bai, guztiz. Gauza bera egiten dugu baina garaian iruditzen zait tokiko giroa pizteko gehiago balio zuela.

### **17-Zer funtzio betetzen du Korrikako segipenak?**

Zuzenekoa egiten genuen iragarpenak egiteko. Berriak emanez animazioa sortzen genuen, giroa pizten genuen. Hegoaldean ginelarik Iparraldeko giroa berotzeko baliatzen genuen irratia. Irratiko segipenak eta Gure Irratiak parte hartu du euskararen uholdean, funtsezko rola izan du euskararen sustapenean eta indar handia ere bai. Edukia, animazioa eta lotura eskaintzen du zuzenekoak. Euskal Herriko ertzak eta periferian diren jendeak erdigunera ekartzen ditu Korrikako zuzenekoak. Ez dira “betikoak” mintzatzen ari direnak.

### **18-Nola eboluzionatu da zuzeneko segipena denboran zehar?**

Teknologikoki hobetu da zuzenekoa. Orain arrunt kalitate handikoa da zuzenekoa, garaiko telefono kabinatik aldatzen da, zinez.

### **19-Zure ustez, zer eragin du Korrikako segipenak entzuleen artean?**

Lotura bat sortzen du Korrikaren segipenak. Gu bezalakoentzat ongi da, giroa guztiz berotzen baitu eta indarberritzen duelako. Motibatzen du eta atxikimendu hori bitxia da, ez dakit nola erran. Goizeko 06:30tan segitzea Korrika irratitik adibidez erokeria da, ez dugu hango jendea ezagutzen. Sortzen duen hori deskriba ezina da. Bertze sentsazioa bat 1999an eta 2001an, Korrika bukatu genuelarik sentsazioa ukan nuen norbaitek zerbait ebatsi zidala. Huts



ikaragarri bat sortu zidan. Menpekotasun ona da hori.

Pasioa zabaltzen du ere Korrikako segipenak. Elkarrizketatuen kasuan, hori transmititu dutela iruditzen zait uhinen bidez entzuleei.

**20-Korrikaren irratiko zuzeneko segipenak galdu ote du bere funtzio nagusia sare sozialen erabilera geroz eta handiarengatik?**

Irratia zehatza da, zuzenena da. *Streaming* bideoa baino zehatzagoa nire ustez. Detaile gehiago emaiten ditu irratiak. Ez dakizu erreala den *streaming*-a batzuetan. Benetazkoa da irratia ren ekarpena. Irratia bizirik dirau. Zerbait egiten ari ziren bitartean entzun dezakezu irratia, telebista edo *streaming*-a adliz, ez.